

Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA



Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28
Donostia
Tfn-943 393520

herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com





Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



AURKIBIDEA

1 SARRERA

2. HERRI AMETSA IKASTOLAREN JATORRIA ETA BILAKAERA

3. IKASTOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

3.1. FUNTSEZKO ADIERAZPEN NAGUSIAK

3.1.1 NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK

3.1.1.1. Izaera

3.1.1.2. Eginkizuna

3.1.1.3. Ikuspegia

3.1.1.4. Testuinguruaren azterketa

3.1.1.4.1. Ikasleen jatorria

3.1.1.4.2. Gurasoak

3.1.1.4.3. Ikastetxearen deskribapena

3.1.2 IRIZPIDE PSIKOPEDAGOGIKOAK: CURRICULUMAREN PRINTZIOPIOAK

- a) Balioetan oinarritutako hezkuntza
- b) Euskara eta euskalduntasuna ardatz
- c) Ikaslearen izaera propioa
- d) Gizarte alderdia

3.1.3 ANTOLAKUNTZA-EGITURAREN PRINTZIOPIOAK

3.1.4 PROZESUEN KALITATEA BERMATZEKO PRINTZIOPIOAK

3.1.4.1 Kalitatearen definizioa

3.1.4.2 KEI Kalitate eredua

3.2. HEZKUNTZA EREDUA:

3.2.1. Ikaslearen irteera profila orokorra.

3.2.2. Irakasleen profil orokorra.

3.2.3. Familia eta gizarte hezitzaileen eragile eredua.

3.3. JARDUNBIDE ETA KUDEAKETA EREDUA

3.3.1. Gobernu egitura.

3.3.2. Funtzionamendu egitura.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA


Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



1. SARRERA

Herri Ametsa Ikastola Guraso Kooperatiba Elkarte, Donostiako Bidebieta auzoan, Guardaplata 28an, dagoen hezkuntza ikastetxea da. Gure Ikastola Ikastolen Elkarteko eta Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioko partaidea da. Herri Ametsa Ikastolak 2008an Horreum fundazioak emandako kalitatearen KEI izeneko agiria eskuratu zuen.

Gaur egungo arautegiak eta premiak gure Ikastolaren Hezkuntza Proiektua osatzera garamatzate. Haren beharra begi bistan dago: dokumentu honetan agertzen da bai Ikastolaren nortasuna eta norabidearen definizioa hezkuntza komunitate gisa, nola gizartearen garapen eragile moduan. Nor garen, non gauden, zer nahi dugun, zer egingo dugun eta nola egingo dugun argitzea du helburu gure Ikastolaren Hezkuntza Proiektuak. Honako eskeman gure Ikastolaren Proiektua osotasunez agertzen da:





Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



Hori dela-eta, dokumentu honetan atal hauek azaltzen dira:

- Sarrera: gure Hezkuntza Proiektuaren proposamena kokatzen duena,
- gure jatorria eta bilakaera: nondik gatozen, non gauden eta zein diren gure erronka nagusiak,
- Ikastetxearen eta ingurunearen azterketa, guraso eta ikasleen egoera kontuan hartuta zein den eta nora goazen azaltzen duena,
- Ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren marko orokorra edo funtsezko ezaugarrien adierazpen nagusiak:
 - a) nortasuna eta ezaugarriak: izaera, eginkizuna, ikuspegia eta ikastolaren eta ingurunearen azterketa,
 - b) identitate oinarriak: curriculumaren printzipioak,
 - c) antolakuntza-egituraren printzipioak eta
 - d) prozesuen kalitate bermatzeko printzipioak azaltzen duena,

(Hemen aldaketak egin beharko dira)

Jarraian, Oinarrizko Curriculum Proiektuaren bitartez, euskarri nahiz osagarri diren beste dokumentuak osatu beharko dira, barne erreferentzia nagusi honek eta legeek agintzen dituzten gutxieneko betebeharrak kontuan hartuz:

BARNE ERREGIMENEZKO ARAUDIA, aurrekoaren bitarteko gisa. Han arautzen dira:

- Ikastetxearen egitura,
- Funtzioen Gidaliburua eta
- Elkarbizitzarako arauak.

ZENTROAREN CURRICULUM PROIEKTUAK

Egitekook mintegiz, zikloz eta sailez osatu eta bideratu behar dituzte irakasleek:

- helburu orokor horiek bultzatzeko, zikloz zikloko aukerak aztertu eta helburu zehatzak eta eraginkorrak erabaki,
- helburuok lortzeko, mailaz mailako ekintza zehatzak programatu, ahal dela programetan lantzen diren gaiekin loturik edota ekintza bereziak bezala planifikaturik,
- azkenik, proba berezien bitartez zein lorpen neur daitezkeen eta zeintzuk ez erabaki, eta haietako batzuk garrantziaren arabera ebaluatzen saiatu; horretarako, frogak jaso edo prestatu eta aplikatzeko bitartekoak ezarriko dira.

Horren guztiaren azken helburua hezkuntza lana hobetzea dugu: izan ere, hezkuntza ez zaigu Ikastolan hutsetik hasten eta zenbait gauzatan zerbait aldatu besterik ez da egingo.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



2. HERRI AMETSA IKASTOLAREN JATORRIA ETA BILAKAERA

2.1 HERRI AMETSAREN JATORRIA

Donostiako Herrera auzoko herritarrek sortu zuten Herri Ametsa Ikastola 1966an, euskara eta euskal kultura bere ikasleei transmititu, garatu eta indartzeko, heziketa integralaren barruan. Ibilbide luze hartan, hainbat egoera juridiko izan ditu:

- 1966an sortu eta 1974 bitartean legeztatu ezinik, Apezpikutegiaren babesari esker iraun zuen,
- 1974an, Ministerioaren legeztapena lortu zuen, Kultur Elkarte gisa,
- 1976an, Herri Ametsa Ikastola S.A. sortu zen,
- 2004an, Herri Ametsa Ikastola Guraso Kooperatiba Elkarte bihurtu zen.

1970.ean eta urte batzuetan Altza eta Intxaurrendoko ikastolekin bat eginik egon zen, 1980-81ean Intxaurrendoko Ikastolak bere bideari ekin zion arte. Hasiera hartan, haur euskaldunak beren ama hizkuntzan hezteko izan zuten helburu; ondoren, haur erdaldunak euskalduntzeko konpromisoa hartu zuen, Ikastolaren inguruko biztanle gehienak erdaldunak direla kontuan izanik.

2.2 HERRI AMETSA GAUR EGUN

Herri Ametsa Ikastolak euskaran ardaztutako eleaniztasunaren aldeko hautua egin du eta hizkuntzak garatzeko erabakia hartu du Hortaz, HERRI AMETSA IKASTOLA D ereduko ikastola da, hau da, euskara eta euskalduntasuna ardatz dituen, eta bide hau jarraitu eta indartzeko asmoa duena.

Publikoa izateko bokazioa dauka eta horrela frogatzen du 1981eko ekainaren 22an izenpetu zen akordioak, heziketarako eskubidea berdintasunean bete zedin; baina 1994ko maiatzaren 24an Euskal Eskola Publikoaren Legea agertu zenean, sare pribatuan geratzea erabaki zuen, ikastolaren helburuetarako egokiago ikusi zuelako. Hala ere, aukera komenigarriago baten zain gaude, euskal eskola publikoa izan nahi baitugu, zalantza izpirik gabe.

Herri Ametsa ikastolak beti bermatu nahi izan du kalitatezko hezkuntza eta bide horretan saiatu. Honela, 2009an Gipuzkoan, eta Euskal Erkidean, Deustu Unibertsitateak sortutako Horreum fundaziotik jasotako lehenengo KEI (Kalitate Egitasmo Integratua) akreditazioa lortu zuen. 2014ean berriztatuz.

Aurten, 2016-2017 ikasturtean Herri Ametsa Ikastolak 50 urte bete ditu.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



3. IKASTOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

3.1 FUNTZEZKO ADIERAZPEN NAGUSIAK

3.1.1. NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK

3.1.1.1. IZAERA

Herri Ametsa Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan gure izaera definitzerakoan, Ikastolen 2009ko urtarrilean VI. Batzar Nazionalean adostu zen *Ikastolaren Izaera* dugu Hezkuntza Proiektuaren erreferentzi markoa.

- Ikastola eskola entitatea da, euskal gizarteak hezkuntzan ipintzen dituen ideien eta itzaropenen adierazpenetako bat,
- entitate euskalduna da, euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen, normalizazio eta sustapenarekin guztiz konprometitua, euskalduntasunetik kultura unibertsalera zabal dadin,
- erakunde plurala da: Euskal Herrian dauden ideia, portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijioso guztiei elkarbizitzazko errespetu osoa agertzen die,
- inolako diskriminaziorik gabe, edozein maila kultural, sozial, ekonomiko, sexu eta arrazatako gizakiei zabalik dago, edonori aukera bera eskaintzen dion eskola orekatzailea izanik,
- hautabide demokratikoa egina du: gurasoek, langileek, laguntzaileek, ikasleek, administrazioko ordezkariak... denek ere esku hartu behar dute haren kudeaketan eta eraginkortasunez lagundu funtzionamenduan,
- haren oinarrizko ardatzetako bat autonomia da, hau da, eskumen zabalak eta erabakiak hartzeko ahalmena du,
- herriari dagokion neurrian eta hari atxikirik segitu nahi duen heinean, euskal eskola da, Euskal Herriaren eskola nazionala eratzeko bokazioa duena.
- ikastolen kolektiboarekiko elkartasuna duen unitatea da eta Euskal Herriko ikastolen sarea garatzeko eta bertako partaide eraginkor izateko konprometitua da.
- irakaslegoak, hezkuntza konpetentzia orokorrak bere eginkizunetan txetatzen ditu oinarrizko konpetentziak erdiesteko asmoz.
- Hezkuntza-proiektu hori hezkuntza-komunitateak onetsi eta eguneratua da, ikasleek, beren familiek eta langileek, onartuak dituzten gobernu- eta funtzionamendu-organoen bitartez, partaidetza eragilearekin bere garapenean parte hartuz.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



3.1.1.2. Herri Ametsa Ikastolaren eginkizuna

- Ikastolen mugimenduak sortutako erakunde soziala da Herri Ametsa Ikastola.
- Gurasoen Hezkuntza Kooperatiba da eta Hezkuntza Komunitatearen inplikazioa Ikastolaren egitasmoetan dago. Gurasoen Hezkuntza Kooperatiba da eta Hezkuntza Komunitate dinamizatzailea du: irakasleak, gurasoak, ikasleak, monitorea, eta zerbitzu eta administrazioko langileak. Guztiek Hezkuntza Proiektua aurrera ateratzeko konpromisoa dute, ikaslea ardatz duen kalitatezko hezkuntza eskainiz.
- Errealitate historikoan, sozialean, politikoan, ekonomikoan eta kulturean integratuta dago.
- Herri Ametsa Ikastola ikastetxe euskalduna da, askotarikoa eta integratzailea, eta politika eta erlijio ororekiko independentzia du.
- Ikastolaren xedea hau da: heziketa bukatutakoan, geure Curriculumaren ildoaren arabera, ikasleak gazte euskaldunak, eleaniztunak, arduratsuak, autonomoak, kritikoak, solidarioak, ingurumenarekin konprometituak, demokratikoak, parte hartzaileak eta kulturaz ongi jantziak izatea.
- Proiektuan konprometitutako talde profesional egonkor eta prestatua du Ikastolak, egitasmo berritzailea duena eta teknologia berriak integratzen dituen metodologia motibatzailea, eraginkorra eta esanguratsua darabilena, aniztasun eta adinei egokitua.

3.1.1.3. ETORKIZUNEN IKUSPEGIA

A.- Bilakaera Demografikoaren kurbaz eta ikasleen eskaeraz, honako aztergaiak ditugu:

- egokitzapenaren berrikuntza etengabe eta planifikatua (aurrekontua),
- geure ingurunearen berri ematea, abantailak aurkitu eta adieraztea eta,



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



- geure buruaren kalitatea ezagutaraztea, emaitzen berri emanez.

B.- Ikastetxearen eta erakundearen finantza-egoerari dagokionez, ekonomia garbia eta gardena dugu, edozein gastu kudeatzeko gai dena; hala ere, beharrei aurrea hartu behar diegu, aurrekontuak eratuz eta diruaren erabilpena hierarkizatuz; era berean, ahalik eta diru iturri gehienak lortu behar ditugu.

C.- Irakaskuntza prozesuari buruzko hezkuntza ikerketak eta irakasleak prestatzea eta eguneratzea. Horretarako, irakasleek eguneratuta egon behar dute, planifikazio egokia eginez, hau da, beharrak kontuan izan behar dituzte, etorkizunari begira; hori dela eta, eguneratzearen aplikazioa bermatzeko baliabideak eskainiko zaizkie, baita haien aplikazioa eskatuko ere.

D.- Testuinguru kulturala eta agertuz doazen balio berriei dagokienez, hauexek dira gure erronkak:

- hizkuntza, kultura eta ingurumenarekiko maitasuna adierazi eta transmititzea,
- balioak adostu, bermatu eta kritikaz jarrera berriak egokitzea (horretarako, ikastolan lan egiten dugun guztiok balioak adostu eta aurrera eramateko konpromisoa ziurtatuko dugu) eta,
- gizartean sortzen diren balio berriei aurrea hartu eta horien aurrean jarrera finkoak gauzatzea.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



3.1.1.4. TESTUINGURUAREN AZTERKETA

Ikastolaren Hezkuntza Proiektua garatzerakoan, ingurunearen azterketan oinarritzea behar-beharrezkoa da, ikasleen egiazko behar eta egoerei egokitzeko.

3.1.1.4.1 Ikasleen jatorria

Ikasleak hainbat auzotatik datozkigu: Altza, Herrera, Intxaurrondo, Trintxerpe, Bidebieta...

3.1.1.4.2. Gurasoak

A. Gurasoen ikasketa maila

- Eskola Graduatua baino gutxiago: % 18,3
- Eskola Graduatua: % 22,2
- Lanbide Heziketa / Goi Batxilergoa: % 30,6
- Ertaineko ikasketa unibertsitarioak: % 12,5
- Goi mailako ikasketa unibertsitarioak: % 16,4

B. Euskaldunen portzentajea

- Euskararik ez dakite % 51,4
- Euskara zerbait ulertzen dute % 13,6
- Euskara ulertu eta zerbait hitz egin % 27,2
- Euskaldunak % 7,9

Erabilpena:

- senar-emazteen artean: % 7,6
- anai-arreben / neba-ahizpen artean: % 54,8
- bi gurasoek seme-alabekin: % 7,9
- amak seme-alabekin: % 33,6
- aitak seme-alabekin: % 30,9

3.1.1.4.3. Ikastetxearen deskribapena

Herri Ametsa Ikastola Donostiako Bidebieta auzoan (Mendiolan, Ulia mendian) dago. Instalazioek 19.116 m² ko azalera dute:

Kirol zelaiak 3.100 m² **Berdegunak:** 8.756 m² **Eraikuntzak:** 7.260 m²

Bi linea emateko behar adinako gela dituzten antzeko launa solairuko lau eraikuntza daude. Alboan, txikientzako bi jolas-leku daude; atzeko



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



aldean, dinamika gela, musika gela eta jangela; eta goiko aldean, frontoi handi bat, gimnasioa eta hiru jolasleku.

Eranskina: Herri Ametsa Ikastolako instalazioak

Instalazioak

Gimnasioa			300 m ²	
Lehendabiziko etxea	1. solairua	Haur eskola	222,5 m ²	
	2. solairua	HH 3A	63 m ²	
		HH 3B	63 m ²	
	3. solairua	Musika gela	101,5 m ²	
		HH mintegia	32,5 m ²	
		Botikina	29,4 m ²	
		Komunak	38,5 m ²	
		Aldagelak	60,9 m ²	
		HH 4A	63 m ²	
		HH 4B	63 m ²	
	4. solairua	HH 5A	63 m ²	
		HH 5B	12 m ²	
		Komunak	208 m ²	
Ganbara		50 m ²		
Korridoreak eta eskailerak			50 m ²	
Bigarren etxea	1. solairua	LH 4A	63 m ²	
		LH 4B	63 m ²	
	2. solairua	Biltegi gela	22 m ²	
		Material gela	5 m ²	
		Idazkaritza	28 m ²	
		LH 3A	63 m ²	
		LH 3B	63 m ²	
		Dinamika gela	129 m ²	
		LHko Laguntza gela	18 m ²	
	3. solairua	Komunak	57 m ²	
		LH 1A	63 m ²	
		LH 1B	63 m ²	
		LH 2A	63 m ²	
		LH 2B	63 m ²	
	4. solairua	Liburutegia	208 m ²	
		Korridoreak eta eskailerak		



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Instalazioak			
Hirugarren etxea	1. solairua	Teknologia gela Ikus-entzunezkoen aretoa	222,5m ² 63 m ²
	2. solairua	Teknologia biltegia	63 m ²
		Zuzendaritza	63 m ²
		Laguntza gelak	45 m ²
		LHko mintegia	35 m ²
		Fotokopia gela	45 m ²
		Ikasketa buruaren gela	22 m ²
	3. solairua	Komunak	56 m ²
		Irakasleen jangela	174 m ²
		Ikasleen jangela	63 m ²
LH 5A		63 m ²	
4. solairua	LH 5B	63 m ²	
	LH 6A	63 m ²	
	LH 6B	82 m ²	
	Laborategia	45 m ²	
Korridoreak eta eskailerak	Jantzi biltegia	35 m ²	
	LHko Plastika gela	50 m ²	
Laugarren etxea	1. solairua	DBH 4A	63 m ²
		DBH 4B	63 m ²
		Berogailu gela	21 m ²
	2. solairua	Argi neurgailu gela	13 m ²
		DBH 3A	63 m ²
		DBH 3B	63 m ²
		Jangela	140 m ²
	3. solairua	Komunak	26 m ²
		DBH 1A	49 m ²
		DBH 1B	63 m ²
		DBH 2A	63 m ²
	4. solairua	DBH 2B	63 m ²
		DBHko Plastika gela	63 m ²
Zerbitzari informatikoa		8 m ²	
Korridoreak eta eskailerak	DBHko irakasleen gela	74 m ²	
		50 m ²	



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



3.1.2. IRIZPIDE PSIKOPEDAGOGIKOAK: CURRICULUMAREN PRINTZIOIOAK

Herri Ametsa Ikastolak bere egiten du Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalaren (1948) 26. artikulua edukia, hain zuzen ere honako hauek dakartzana: hezkuntza-eskubidea eta obligazioa nahiz oinarrizko hezkuntza-aldian gutxienez izan beharreko doakotasuna; giza nortasuna bere osotasunean garatzeko helburua eta giza eskubideekiko eta oinarrizko askatasunekiko errespetua sendotzea; eta familiak lehentasun osoz beren seme-alabei eman nahi dien hezkuntza mota aukeratzeko duen eskubidea.

Bestalde, Europako Parlamentuaren gomendioetan definitutakoaren arabera, ikastolen artean osatutako Euskal Curriculumean definitutako hezkuntza kompetentzia orokorren garapena bultzatuko dugu, hala nola, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, norbera izaten ikastea eta egiten eta ekiten ikastea, guztiak ere diziplina-esparru guztietan eta bizitzaren esperientzietan txertatuz, horrela, bizitzarako beharrezkoak eta ezinbestekoak diren oinarrizko kompetentziak lortzeko.

Marko orokor hauetatik abiatuta, hona hemen, definituak eta garatuak gure identitate oinarri eta curriculum printzipioak:

a) Balioetan oinarritako hezkuntza

Hezkuntza integrala garatzeko, edukiak ez ezik, balioak, jokabideak, jarrerak-eta ere kontuan izango ditu Herri Ametsa Ikastolak, ikasle bakoitzaren izate eta nortasuna eratuz joan dadin, atalon arabera:

a.1) Ezagutza eta adimen garapena

- lan diziplinara ohitu; horretarako, adimen-lanaren balorazio positiboa bultzatuz,
- ikasten irakatsiz, ikasteko teknikak bideratu,
- teknika eta baliabide berrietan eguneratu,
- adimen faktore desberdinak garatuz, metodo zientifikoaren oinarriak jarri,
- autonomia eta partaidetasunaren jabetza landu, bakarkako nahiz taldeko lanetarako beharrezkoak baitira,
- errealitateari kritikaz begiratzen irakatsi, gertaerak behatu, aztertu eta arazoak gaintzea norberaren egitekoa dela ulertarazi eta horretara bultzatu,
- ikasle orori dituen adimen-mugak onartzen eta norberaren gaitasunak garatzen lagundu,



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- kultur eta jakintza-zaletasuna sortu.

a.2) Balio estetikoaren arloa

Arlo honen helburua sentsibilitatea eta sormena garatzea denez, ondoko esparru hauek ere jorratuko ditu Herri Ametsa Ikastolak:

- edozein arte adierazpen jasotzeko sentsibilitate estetikoa landu eta norberarenak adierazteko oinarriak jarri,
- gorputz oreka eta hezkuntza fisikoa era egokian landu; norbere soinaren eta osasunaren ardurarako ezaupideak eman eta ohitura onak landu (elikadura, higiena...),
- aisialdia egokiro eta askatasunez erabiltzeko, zenbait zaletasun bultzatu: kirola, musika, irakurketa...

a.3) Balio etikoak, gizartekoitasuna eta gizarte balioen arloa

Arlo honen helburua Ikastolan nahiz kanpoan ikaslea askatasunez eta zuzentasunez hezi eta egokiro gizarteratzeko giro eta bitartekoak eskaintzea da. Hori dela eta, Herri Ametsa Ikastola ondokoak lantzen saiatzen da:

- ikaskide, irakasle, zaintzaile, monitore, guraso eta lagunarteko nahiz beste edozeinekiko balioak (laguntasuna, errespetua, tolerantzia eta egiazaletasuna) aintzakotzat hartu eta elkar bizitza lortzen,
- elkartasunik eza, zapalkuntza, bortizkeria, injustizia, kontsumismoa eta beste hainbat jarreretikiko kritiko agertzen, bakoitza ahal duen neurrian aldatzen ahalegin dadin,
- norberak duen askatasun eskubidearen aurrean, norbanakoa mugatzen jakin eta, era berean, inguruko ororen askatasunarekiko jokabide arduratsuak lantzen,
- kontzientzia askatasuna oinarritzko eskubidetzat hartuz, joera politiko guztiak onartuz, elkarri ideia politikoak agertzeko eta errespetuz defendatzeko eskubidea bermatzen; ildo berean, erlijio gaia pluralismo oinarriaren arabera egituratzen,
- erlijioak gure gizartea ulertzeko duen garrantziaz jabeturik, ahal diren maila guztietan Erlijio Kultura gaia geure curriculumetan txertatzen,
- jokabide konpetitiboak ahal den neurrian ahulduz, elkar laguntzan hezi eta elkarbizitza baketsurako bidea jorratzen,
- euskal hiritar izateak eskatzen duen Euskal Herriarekiko begirune eta erantzukizunez bizitzen eta jokatzeko,



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- hezkidetzan hezten, hau da, neskek eta mutilak eskubide eta egoera berberetara ohitu eta elkarren arteko errespetuzko jarrerak ziurtatzen,
- gizarte aldakor honetan sortzen diren balio berrien aurrean, hausnarketa ireki eta kritikoa sustatzen, jarrera positiboak bultzatzeko.

b) Euskara eta euskalduntasuna ardatz

- Herri Ametsa Ikastola D ereduko ikastetxea denez, euskara batua da hizkuntza estandarra; hala ere, euskalkien erabilpena errespetatu eta bultzatzen da,
- euskara ez da mugatuko Ikastolarekiko harremanetara: eguneroko jardunean, herrian nahiz kanpoan erabiltzearen kontzientzia landu eta bultzatuko da,
- euskaraz ez dakiten guraso eta ikasleak euskalduntzera eta euskal giroan integratzera bultzatuko dira, ahal den laguntza eskainiz,
- gure inguruaren errealitateari erantzun nahian, Ikastolaren hizkuntza helburu nagusia euskara eta gaztelania menderatzea da. Halaber, *Eleanitz* Proiektuan murgildurik dago (Ingelesa HHTik irakasten da eta, gainera, DBHn Frantsesa hautatzeko aukera dago),
- eskola barruko bizitzan erabiltzen den hizkuntza euskara da,
- herri ikastola da, herriaren zerbitzurako sortu baitzen; horrengatik, euskara ez ezik, Euskal Herria ezagutarazten eta maitarazten ere saiatuko da, euskal kulturaren adierazgarriak eta ekintzak landuz eta zabalduz,
- Euskal Herriaren lurraldetasun osoarekiko kontzientzia zabaltze bidean, gure herriko gaiak eta arloak erabili, landu eta sakonduko dira: artea, ohiturak, folklorea, historia, literatura, geografia, hizkuntza eta kultura oinarritzat hartuta, Euskal Herria zazpi probintziek osatzen dutela aldarrikatuz.

c) Ikaslearen izaera propioa

c.1) Hezkuntza indibiduala

Oinarri honek Ikastolaren egitekoaren erreferente nagusia izan behar du, haren aplikazio osoa ezinezkoa izan arren, giza baliabide urrien ondorioz. Aniztasunaren azterketa eta esfortzuaren ahaleaginean, eremuak eta mailak aukeratuz eta osatuz joango da Herri Ametsa Ikastola, behar nagusietatik hasita, hobekuntza



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



pedagogikoa etengabeko bihurtuz. Irakaskuntza sisteman, ikasketen ulergarritasuna ziurtatzea ikaslearen eskubidea baldin bada, aniztasunaren araberrako egokitzapena da aurreko oinarriaren baldintza osagarria.

Hona hemen hezkuntza indibiduala bermatzen duten zutabe nagusiak:

- bakoitzak bere buruaren ezagupenean aurrera egin eta sakontzea,
- ikasleek beren burua ezagutzetik eta beren buruaren irudi egoki eta positiboa edukitzetik abiatuta, oreka afektiboa lor dezaten ahalbideratzea,
- hezkuntza prozesua ikaslearen beharrei zehazki egokitzea,
- ikaskuntza arazoak eta moldaera pertsonala eta sozialeko zailtasunak aurreikustea eta ahal den neurrian bideratzea,
- heldutasuna, balioak, jarrerak eta jokabideak indartuz, ikasleak erabakiak modu autonomo eta arduratsuaz hartzeko gaitzea,
- nor bere jardueretan arduratsua eta auto-diziplinatsua izan dadin gaitzea.

c.2) Ezagutza eta adimena

Ikastetxearen zeregin nagusia heziketarekin batera irakaskuntza da, eta arlo horretan, jarrerak eta prozedurak edukiak bezain garrantzizkoak dira. Halaber, irakaskuntza aktiboan oinarrituko gara, ikaslea izanik ikastetxearen subjektua eta ikasketen protagonista. Era berean, irakaskuntza kritikoa gure hezkuntza proiektuko oinarri nagusi bat da. Beraz, ulermena, interpretazioa, hausnarketa eta iritzi propioa nahiz partaidetza eraikitzailea bermatuko dira. Horretarako, ikaslearen gaitasun hauek landuko dira:

- ikasleak dituen gaitasun intelektualak ahalik eta gehien garatzea; horretarako, jakin-mina eta interesa suspertu eta, aldi berean, ikasteko teknika eta lan ohitura zuzenak irakasten dira,
- eskura dituzten informazio bitartekoak erabiltzen irakasten da: entziklopediak, kontsulta liburuak, elkarrizketak, internet eta abar,
- teknologia eta ohiko baliabide nahiz berrietan trebatzen eta bitarteko gisa erabiltzen dira.
- autonomia eta partaidetasunaren jabetza lantzen da –bakarkako nahiz taldeko lanetarako hain beharrezkoak-,
- ikasteko ohiturak planifikatzen irakasten da: ikasteko tokia aukeratzen, denbora antolatzen, gorputzaren jarrera egokiak



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



mantentzen, lanak txukun eta garbi egiten, baita garaiz aurkezten ere,

- adimen faktore desberdinak garatuz, metodo deduktiboaren eta induktiboaren oinarriak jartzen dira, problemak ebazteko edo egoerak gainditzeko prozedurak sortuz, parekatuz, konponbide arrazoituak proposatuz, zuzena aukeratzen saiatuz eta egokitasuna egiaztatuz halaber,

- adierazpen matematikoaren hainbat modu (zenbakizkoa, grafikoa, logikoa...) norberak ohiko arrazoiketa bide eta hizkuntzan txertatzen dira, pentsaera propioa gero eta modu zehatz eta egokiagoan komunikatzeko,

- entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmena ziurtatzen dira, ikasteko prozesuan ezinbestekoak direlako,

- azpimarratzea, koadro sinoptikoak, eskemak, laburpenak, grafikoa, eskalak, mapak eta beste hainbat prozedura -hain beharrezkoak ulermenerako- interpretatzen, ondorioak ateratzen eta erabiltzen irakasten da,

- testu tipologia guztiak lantzen dira eremu guztietan (pribatuan, eskolan, instituzioetan, komunikabideetan eta literarioetan): azalpenak, instrukzioak, aginduak, narrazioak eta argudioak,

- ekoizpen idatzi zein ahozkoak egiten irakasten da, egokitasunez, koherentziaz, kohesioz eta zuzentasunez,

- oroimena lantzeko eta jasotakoa gordetzeko, informazioa gogoratu eta birgogoratuz finkapen lana egiten da, aurre-jakintza eta ulergarritasunaren oinarritik abiatuz,

- irakasleek behaketak eginez eta auto-kontrola irakatsiz, ikasleen arreta bermatzen da,

- materiala -norberarena, taldearena nahiz orokorra- zaintzen irakasten da,

- ikasleei errespetuz jokatzeko irakasten zaie, beren jarrerak besteei ekar diezazkiekeen ondorioez ohartaraziz,

- bake hezkuntzaz etengabe hausnartzen da, giza eskubideak aztertzen dira eta jarrera sozial eta etikoak -funtsezkoak elkarbizitzarako- eguneroko harremanetara zabaltzen dira,

- edozein gairen hausnarketa ziurtatzeko, gogoeta, kritika, eztabaida, analisia eta sintesi gaitasunak lantzen dira,

- eleaniztasuna bermatzen da,

- euskal hizkuntza eta kultura oinarritzat hartu eta kultura unibertsala irakasten da,

- zehar lerroen bidez, nahiz gorputz hezkuntzaren bidez, elikadura orekatua, higiena eta osasuna garatzen dira,

- sentsibilitate artistikoa eta sormena garatzen dira,

- hezkuntza fisikoaren eta osasunaren garapenean laguntzen da.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



d) Gizarte alderdia

d.1) Geure herria

d.1.1) Hizkuntza

- Euskara lehen hizkuntza da Herri Ametsa Ikastolan; ikasleak jatorriz euskaldun ala erdaldun izan, edozein esparru edo egoeratan dagokion erregistroa erabiltzeko gai izango dira hezkuntza amaitutakoan.
- Ildo horretatik, Ikastolak eskaintzen dituen zerbitzuetan euskararen erabilpena bermatu egingo du. Helburua, ordea, eskolak bakarrik bete ezin duenez, administrazioak eta gizarteak bide egokiak sortu behar dituzte gaur eskoletan euskalduntzen ari diren ikasleek bizitza sozialeko edozein esparrutan beren ahalmenak euskaraz garatu ditzaten, bai gaur egun, bai etorkizunean.
- Ikastolaren lehentasunezko hizkuntz helburua euskara jakitea eta erabiltzea den arren, beste hizkuntza batzuk ikastea ere landu eta bultzatuko da. Euskara lehen mailakoa izanik, gaztelania ere landuko da eta bion ezagupenak egokia izan beharko du. Beste bi hizkuntzen ezaguerak eta erabilpenak ere Ikastolaren hizkuntz helburu izan behar dute: beraz, 4 urtetik aurrera ingelesa eskaintzen da eta DBHn, laugarrenaren aukera (frantsesarena).
- Euskara da irakaskuntza zabaltzeko hizkuntza, beste hizkuntzak lantzeko orduetan salbu.
- Ikastetxeko harreman guztietarako, euskararen erabilera eskatuko da.
- Ikastolako langileek beren euskara ontzen saiatu behar dute, ikasleei euskara eredu egokia eskain diezaieten.

d.2) Euskal kultura

Ikastolek, Euskararen Lurralde gisa hartzen du Euskal Herria, bere historia Pirineoen bi isurialdeetan hedatzen den mendebaldetik mugarik gabeko jendez osatutako espazio unibertsalera irekita ekarpen desberdinekin eraiki duen eta eraikitzen ari den lurraldetzat, lehendik definitutako baina etengabe berritzen eta aberasten ari diren hizkuntza- eta kultura-arrasto berezitueta oinarritua.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Gainera, bere hezkuntza-lana gauzatzeko, ikastolek, Euskal Herria izena, Euskaltzaindiak 2003. urteaz geroztik erabiltzen dute zentzu berean erabiltzen dute, hots, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroak (Behereak eta Garaiak) eta Zuberoak osatzen duten lurralde-multzoa identifikatzeko.

Euskal Herriaren ezagutza ikasleari helarazteak bereziko garrantzia du gurean; ikasleak bere herriaren kultura landu, bereganatu eta garatu behar du, herria errespetatu eta maita dezan. Horretarako, hezkuntza komunitateak zer eta nola helarazi ahalik eta garbien eduki behar du, eta beti ahalik eta objektibotasun zintzoenaz landu.

- ikaslearen ikasketa prozesuak ingurune eta errealitate hurbiletik hasi eta ikuspegi zabalagoetara jo behar du, herriaren kultura lantzeak garrantzi handia du, ikasten duena esanguratsua iruditu dakion,
- Euskal Herriaren kultur ondarearen esparru eta osagaiez jabetu behar du ikasleak, gure kulturaren balioen berri emanez,
- Euskal Herriko geografiaren berri izatea, ingurune fisikoa, naturala, politikoa nahiz ekonomikoa landuz,
- geure herriaren historia eta artea irakastea, garai eta gai esanguratsuenak aztertuz,
- euskal kulturari lotuta agertzen den herri bizitza bultzatzea: mitologia, sinesmen erlijiosoak, herri kirolak, bertsolaritza, euskal musika eta abestiak, dantzak, jaiak...
- euskara eta euskal kulturaren gainean eraikiko da euskalduntasuna: geure kulturaren hartzaile soil izatetik, partaide eta sortzaile izatera bideratuko dira ikasleak.

d.3) Gizarte jarrera

Gizakiaren izaera nagusia elkarkotasuna izanik, gizabanakoa ez daiteke giza taldetik kanpo gara. Harreman estua dugu gizartearekin eta bertan kritikoki egokituz bakarrik lor dezakegu geure oreka. Herri Ametsa Ikastolak badaki eskolan ikasleen gizarte jarrerak lantzeak duen garrantzia eta erantzukizun horri irmo heltzen dio. Geure giza ikuspegi eta gizarte ikuspegian oinarriturik, gizarte jarrerak eta balio etikoak sistemaz landuko ditugu heziketa proiektuan, lan orduetan txertatuz, haur eta gazteen heziketarako ardatz nagusitzat jotzen ditugulako.

Zein balio eta jarrera lantzen den Hezkuntza Proiektu honetan azaltzen bada ere, ezinbestekoa izanen da denon arteko elkarrizketaz eta eztabaidaz jarrera eta balio horiek gizartearen



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



errealitateari egokitzea. Dena den, balioak hain ugariak izanik, Ikastolako komunitateak honako hauek hartu ditu nagusitzat, beste hainbat balio egunerokotasunean, familian, lagunen bidez-eta lortzen diren arren.

d.3.1) **LANDU NAHI DIREN BALIO SOZIAL ETA ETIKO NAGUSIAK**

d.3.1.1. Elkartasuna

Gizabanakoaren arrakastak gure gizartean balio eta helburu nagusia dirudi. Haren arabera, gizarteak ondasunen metaketa, boterea eta ohore soziala lortzera bideratzen du gizakia. Horregatik, elkartasun balioaren arabera besteari on egitea eta on egin nahi izatearen jarrera landu behar da; eguneroko bizitzan besteekiko harreman egokia bideratu eta egoera berezietan behar duenari laguntzera eramango gaituen jarrera. Jarrera horixe da, bestetik, landu nahi ditugun balio sozial eta etiko guztien oinarria, solidario izan ezean zaila baita bakezale, pluralista, tolerante edo egiazale izatea.

d.3.1.2. Tolerantzia, elkar errespetatzea, elkarrizketarako joera

Tolerantzia balioa pluralismoa onartzean datza, gizartearen ideia eta antolaketan iritzi eta ikusmolde ezberdinen errealitatea aitortzea eta bera errespetatzea da, ez baita axolagabekeria edo axolagabetasuna. Horregatik, jasotzen dugun informazioen bitartez eratuko den errepresentazio eta balore sistema bat beharrezkoa dugu, non tolerantziak horrekiko oinarrizko onarpena bultzatu behar duen, baina beti balore sistema hori onartzen ez dutenen eta hori aldatu nahi dutenen iritziak agertzeko eta lana egiteko eskubidea errespetatuz. Beraz, jarrera edo estilo bat da tolerantzia, bakoitzak gauzak azaldu, arrazoitu eta askatasunez egiaztatzeko bidea irekiko duena, norberarentzat eta besteentzat.

d.3.1.3. Askatasuna / erantzukizuna

Herri Ametsa Ikastolak askatasunez hezi nahi ditu ikasleak, libre izateko gai izan daitezen, askatasunez jokatzeko gizaki egiten baikaitu. Ikasleak bere kabuz pentsatzen, erabakitzen, jokatzeko



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



eta egiten duena aztertzen eta baloratzen ikas dezan lortu nahi du gure Hezkuntza Proiektuak. Bistan da irakaskuntzak eta funtzionamenduaren estiloek helburu horretara egokituak izan behar dutela. Herri Ametsa Ikastolako hezkuntza komunitateak badaki libre izatea ez dela erraza, eta saiatuz soilik ikas daitekeela hori, libre izatea ez baita aldioro gogokoen dugun hura egitea; era berean, gure hezkuntza sisteman ez da onartzen eta ez da onartuko autoritarismo eta gainezartze joerarik, askatasun eta erantzukizunera bultzatu beharrean, mendekotasunera baitarama. Horregatik, ikaslea txiki-txikitik ohitu behar da bere jokabide eta erabakien arduradun eta erantzule izatera.

d.1.3.4. Berdintasuna

Gaur egungo gizarteak arlo guztietan duen genero harreman desorekari aurre egiteko gure ikasle guztiak berdintasun printzipioan heziko ditugu balore, eskubide eta aukeretan.

d.1.3.5. Alaitasuna eta esperantza

Gure ikasleei norberarentzako eta gizartearen geroarekiko esperantza askotxo zabaltzen ez den garaian bizitzea egokitu zaielako, eta heziketa-irakaskuntza sistema alternatiboa emaile izugarria ez denean –geure lanean, kontuan hartu beharrekoa-, bereziki ahalegindu behar dugu bizitzarako alaitasun, poz eta itxaropen balioak –ezinbestekoak denak- indartzen, beste balio guztiak egokiro garatzeko oinarrizkoak baitira. Hori dela eta, ikasle bakoitzari bere alderdi positiboak aitortu eta landuko zaizkio, bere buruaz eta etorkizunaz ikuspegi baikorra beregana dezan.

d.1.3.6. Egiazaletasuna

Egiazaletasuna balio etiko bat da. Jokabide zintzoari dagokio gezurra ezeztatze beharra gureganatzea. Egiara hurbiltzeko ahaleginean, ikuspegi ezberdinak ezinbestekoak dira, egia eta errealitateak anitz baitira; beraz, kritika eta hausnarketa gaitasunetan heziko ditugu ikasleak. Ikasleak egiazale heziko badira, aniztasunarekiko errespetua, dogmatismorik eza eta ikuspegi kritikoaren garapena etengabe eman behar die hezkuntza komunitateak.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



d.1.3.7. Laztasuna

Gizarte kontsumo zalean bizi gara eta horrek ondorio kezkgarriak izan ditzake, neurriko laztasunean ohitzen ez bagara. Bizitzaren ikuspegi materialistak balio garrantzitsuagoak (batez ere, kideekiko harreman jatorrak) alboratzera eraman ditzake. Txikitatik neurrigabeko kontsumoan ohitzea arazo larria bihurtzen da eta ondorioak are arazotsuagoak izan daitezke, hots, gauzen balioaz konturatu ez eta ekintzak nagusiki haiek lortzera zuzentzen direnean, lagun hurkoaren balioa daukanaren arabera neurtuz.

Ikasleek eta gurasoek jakin behar dute auto-estimua ez daitekeela inola ere kontsumismoan finka. Horretarako, gurasoekiko hezkuntza harreman estua behar da. Laztasuna gero eta beharrezkoagoa izango da, ekologia balioak kontsumo irrikari mugak jarriko baitizkio; beraz, darabiltena balioetsi eta zaintzen ikasi beharko dute ikasleek.

d.3.1.8. Elkarbizitza

Kultura eta giro jakin batean jaiotzen garenez eta kultura bakoitzak bere elkarbizitza bideratzeko zenbait jendetasun arau dituenetz, Herri Ametsa Ikastolak garatu egingo ditu, errespetu eta kalitatezko elkarbizitza lortzearren, hala nola:

- adinekoei, elbarrituei, laguntza behar duen edonori... zor zaien errespetua,
- irakasle-ikasle arteko duintasunezko tratua,
- ingurua, eraikinak eta erabiltzen ditugun gauzak errespetatu eta txukun mantentzen saiatzea,
- elkarri diosala egitea, mesedeak eskertzea, baimenak eskatzea, lanaldiak ez etetea, ordenan eta patxadan ibiltzea, ozenegi ez hitz egitea...

d.3.1.9. Elkarbizitza baketsua

Herri Ametsa Ikastolak elkartasunean, tolerantzian, elkarrenganako errespetuan, askatasunean eta pluralismoaren egiazko onarpenean oinarrituko du bere bakezko elkarbizitza. Helburu nagusi hori aurretik eta ondoren bultzatzen ditugun balio horien nahitaezko ondorio naturala izanen da; horrela, hezkuntza komunitate osoaren arteko elkarbizitza baketsua lortuko dugu.

Curriculum guztiak zehar lerroen bidez gidatuz egin behar dira



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



eta hezkuntza komunitateko partaide guztion egitekoa da. Izan ere, hezkuntzaren eremuan gertatzen da Ikastolaz kanpoko beste eragileen ekarri nagusia: gizartearena, lagunena eta, batez ere, familiarena. Ikastolak nekez landuko ditu baliok, gurasoek ere ez badituzte lantzen.

Gizartearen jokabideetan askotan nagusi agertzen diren kontra-balioen aurka geure ahaleginak egin eta geure baliok suspertzearen alde lanean arituko gara. Horretarako, nork bere eremuan lan egingo du: gurasoek etxean eta zuzendaritzak, irakasleek, zerbitzuetako zaintzaileek, eskolaz kanpoko monitoreek, administrazioko langileek, ikasleek... Ikastolan.

d.2.3. Zehar lerroen bidez landutakoak

Hezkuntza Proiektuan garrantzi handiko gai osagarri batzuk zehar lerroen bidez txertatu nahi dira. Hain zuzen, osasuna eta Natura zaintzeko sentsibilitatea emendatu da azken urteotan eta haiei buruzko informazioa jaso eta ohiturak aldatzeko beharra garbi ikusten da; horren ondorioz, hezkuntza gai bihurtu nahi dira. Era berean, sexu heziketa lantzen da, gizakion sexu gaitasuna egokiro garatzeak bizitzaren kalitatea –atsegina goa eta zoriontsuagoa- bideratzen duelako. Halaber, formazio politiko eta kultura erlijiosoari ere tratamendu bera ematen zaie.

d.2.3.1. Osasuna

Nork bere osasuna zaintzeko eta hobetzeko gaitasuna lantzea da zehar lerro haren xedea, osasuna ez baita berez helburu, eguneroko bizitzarako baliabide baizik. Haren inguruko heziketak ikasleari jokamolde osasungarrienak aukeratzeko gogoia piztu behar dio; hori lortzeko, ingurune fisiko eta sozialak ahalbideratu behar ditu aukera horiek. Bestalde, ikasleak berak eragile aktibo bihurtu behar du zeregin horretan. Hori bultzatzeko, hiru dira Hezkuntza Komunitatearen egiteko nagusiak:

- ohitura osasungarriak eskola lanean garatzen saiatzea,
- ikastetxearen eremuan gune osasungarriak sortzea eta
- Hezkuntza Komunitatearen eragin osasungarria indartzea.

Helburu orokorrak

Ohitura osasungarriak ikastetxearen eremuan indartzeko, eskolaren ahalegina ondorengo puntuotan zehazten da:



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- a) Eskolaren Ingurua osasunaren aldekua izan dadin lortzea:
- istripuen prebentzioa eta instalazioen segurtasuna zaintzea,
 - eraikinak egoera onean eta inguruaren txukuntasuna mantentzea eta altzari egokiak izatea,
 - argi eta bero egoera eta isiltasun giro egokia edukitzea,
 - jangela eta komunak higiene egoera onean edukitzea eta eskolan lor daitezkeen janariak eta beste kontsumo gaiak osasungarriak izatea,
 - Ikastolako zuhaitz eta berdeguneak zaintzea, mantentzea eta egunerokotasunean txertatzea.
- b) Osasunerako hezkuntza garatzea:
- hezkuntza fisikoa eta kirola indartzea,
 - ezbeharren prebentzioaz eta lehen sorospenez informatzea,
 - telebistaz, telefono mugikorraz, bideoez, DVDez eta ordenagailuetako jokoez hausnartzea eta aholkuak ematea,
 - elikagaien berezitasunak eta higiene arauak (garbitasuna eta aho higiena) bereziki lantzea,
 - elikagaietako elementu kaltegarrien kontsumoaz eta sexu harremanen bitartez sortu edo transmititzen diren gaixotasunen prebentzioaz informatzea,
 - tabakoaren, alkoholaren eta legeztatu gabeko drogen kontsumoaz informatu eta ondorioak balioetsi, haien kontsumoa galaraztearren.
- c). Eskolan osasun azterketak eta kanpainak sistematizatzea
- gurasoak gaion inguruan sentibilizatzea, hitzaldiak antolatuz,
 - irakasleak eta irakaskuntzaz kanpoko langileak informatu, eta adituekin harremanak antolatzea,
 - Osakidetzarekin eta beste osasun erakundeekin osasun azterketa, txerto kanpainak eta abar direla-eta, harremanak eta elkarlana zaintzea,
 - gaiaren inguruko informazio bideak eta galdekizunak onartzea eta haien ondorioak aztertzea.

d.2.3.2. Natura zaintzea: ekologia

Natura, ederra izateaz gain, izaki guztion bizileku bakarra dugu: haren kalitatea ekosistemaren oreka mantentzearekin bat dator. Hala ere, neurririk gabeko kontsumismoak, gure industria



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



gizarteak bultzatuta, ekosistema agudo hondatu du. Hori horrela izanik, gizakiok ezin dugu, orainaren ikuspegi hutsean, une batean Natura osoki agortu eta ondorengo belaunaldietarako egoera ezinezkoa bihurtu. Beraz, arazo hari buruzko kontzientzia hartzen ari da gure gizartea: hura indartzera jo behar du hezkuntzak ere. Naturaren aldeko jarrerak sustatzeko arrazoi estetikoak landu behar dira, gozamen gune moduan agertuz eta zaindu beharreko ekosistema gisan ezagutaraziz.

Jasangarritasunaren printzipioetan hezteak:

- Egungo eta etorkizuneko gizarte jasangarria bihurtu.
- Eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana bultzatu.
- Gizartearen errekonozimendua lortu.
- Hezitzaileak trebatu.
- Ikerketa eta ikaskuntza erraztu.
- Hezkuntza komunitatearen parte hartzea bultzatu, genero-ikuspegiaren integrazioa errespetatuz.
- Etorkizuneko erronkak eragin mailan landu.
- Giz rtea eraldatzea. Gazteak inplikatzeko.
- Jasangarritasunaren balioa, bizitza osoko etengabeko ikaskuntza bihurtu.

Helburu orokorrak

Naturaren kontzientzia lantzeko, hiru helburu nagusiok ezarri nahi ditu Herri Ametsa Ikastolak:

a) Ikasleei Natura ezagutaraztea

- ikasleei, ia denak hiritarrak direnez, mendiari, baserriari eta lurrari atxikitzen zaien lana ikusarazi,
- Naturako hainbat elementu ezagutzeko antolatzen diren programetan esku hartzen saiatu,
- Ikastolan antolatzen diren irteerak Natura irekian kokatu eta harexen inguruko programak garatzen dituzten leku eta elkarteetara zuzendu.

b) Natura maitaraztea, bera ezagutzeko

- Naturaren aldeko geure jarrera agertu,



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



➤mendi irteerak antolatu, kirol gisan gomendatu, ikasleak eta gurasoak hartara bultzatu,

c) Gizartearen bizi kalitatearen garapenak eta Naturaren kontserbazioak elkarrengan duten eraginaz gogoeta sistematikoa egitea

➤egungo aurrerapenak Naturaren hondamenerako sortzen dituen arazo arriskutsuenak aztertu,

➤hainbat material birziklatzeko beharra ikusarazi eta kanpainetan parte hartzeko jarrera sortu,

➤gizabanakoak Natura zaintzeko dituen aukerak landu, txikiak izan arren: Natura nola erabili, zer jaso, alferrik ez hondatu, txukun mantendu eta abar.

d.2.3.3. Sexu heziketa eta hezkidetzaz

a. Sexualitatearen eta afektibitatearen heziketa

Ezagutzaren eta jokaeraren beste alderdietan gertatu ohi den bezala, gizartean beti irakatsi izan da sexualitatea, beti transmititu baitira arlo horrekiko balioak, iritziak eta jarrerak. Ezin da, beraz, zalantzan jarri haren hezkuntza behar den ala ez, eguneroko bizitzan hartzen ditugun jarreraren bitartez hezten baitugu.

Pertsona bere osotasunean da sexuduna; hortaz, oso garrantzitsua da txiki-txikitik nork bere sexualitatea ezagutu, onartu eta bideratzen ikastea. Hori dela eta, sexu heziketa sendoa ematen saiatu behar da hezkuntzaren garapenean. Gizakion sexu gaitasuna egokiro garatzeak kalitate handiagoko bizitza segurtatzen du eta, horren ondorioz, bizitza atseginagoa eta zoriontsuagoa; baina sexu gaitasuna ez da osoki genetikoki emana, gizarteratu heinean lortzen baita. Helduen eguneroko jokabidea, beren arteko harremanak, komunikabideen eragina, sexuen araberako lan banaketa eta beste hainbat faktore direla-eta, gizartearen ereduaren bitartez transmititzen dira afektibitate eta sexualitateari buruzko jarrerak. Horregatik du hezkuntzak, haien guztien azterketa kritikoa dela medio, hainbesteko garrantzia.

Guraso eta eskolaren elkarlan horretan, sexu heziketa egokiro bideratzeko funtsezko oinarriok hartu behar dira kontuan:

➤sexu heziketa jaiotzetik hasten den prozesua da eta haren garapenak urteetan segitzen du,

➤badu zerikusirik informazioaren bidez ikasten denarekin, baina



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- halaber erakusten ditugun jarrera eta jokaerekin,
- nork bere buruarekiko estima, onarpena eta elkarrekiko errespetua indartu behar ditu,
 - jokabide osasungarriak bultzatu behar ditu,
 - besteekiko harreman gaitasuna hobetu behar du.

Helburu orokorrak

Sexualitatearen hezkuntzak afektibitatearen garapen orekatua eskatzen du, aurreko puntuan adierazi den bezala. Hori kontuan izanik, helburu orokor hauek finkatu dira:

- gorputzaren ezagutza mailakatua ezarriko da curriculumetan:
 - garrantzi handia emango zaio txikitatik gorputza lantzeari: norberarena ezagutzea, atalak eta funtzioak, eta neska-mutilen gorputzen arteko desberdintasunak
 - txikitatik, anatomiari buruzko hitz zuzenak erabiliz irakatsiko da
 - sexualitatea modu positiboan hartzeko, txikitatik afektuen eta sentimenduen mundua landuko da: jendearekin erlazionatzean, sentimenduak ezagutu eta bereizten ikasten hasi behar dute, guraso, senide, aitona-amonak, lagun eta kideekin
 - informazio zuzena emango zaie ikasleei beren sorreraz galdetzen dutenean,
 - sexualitateari buruz hitz egitean, irudi positiboa azalduko dugu beti, tabu, debeku, diskriminazio, obsesio, norgehiagoka eta komertzializazio ideiak baztertuz,
 - ikasleari sentimenduek eta afektuak sortarazten duten plazeraren ikuspegi baikorra eman behar zaio, bizitzan integratzen den plazera poz eta zorion bidea delako,
 - garapen horretan gerta dakizkioken arazo guztiak normaltasun osoz ikusten eta gaingitzen lagundu behar zaio,
 - sexu harremanen garrantziari dagokien askatasun eta erantzukizunean hezi behar dira, horri lotuta dauden harremanen inguruko alderdi biologiko, psikologiko eta etiko guztiak ezagutaraziz,
 - gaztea osasun eta jokabide sexuarekiko arrisku taldean sar daitekeenez, arrisku alderdi guztiei buruzko informazioa landuko da:

Arriskuko alderdi batzuei buruz espresuki hitz egingo zaie

- adin hartako harreman sexualen praktikaren adierazgarriak



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



eta arriskuak,

- haurdunaldien arriskua eta ondorioak,
- sexu harremanen bitartez kutsatzen diren gaixotasunen arriskua.

Gazteen sexualitatearekiko interesgune ezagunak landuko dira

- adin hartan gertatzen diren aldaketa fisiologikoak, psikologikoak eta sozialak,
- identitate eta orientazio sexuala,
- sexuaren araberako rolak,
- sexu harremanen adierazpen ugaritasuna eta zenbait sexu ekintza,
- ugalketa eta kontrazepzioa,
- planifikazioa eta aitatasun-amatasunaren erantzukizuna, azken alderdi hori nagusizat harturik,
- adituak ere erabiliko dira, gaitasun berezia behar delako, intimitate aukera emateko eta irakasleekiko lotsak eragin lezakeen jarrera saihesteko.

b. Hezkidetzaz

Herri Ametsa Ikastola sortu zenetik, hezkidetzaren aldeko agertu zen, hau da, inori sexuaren araberako bereizkuntzarik ez egitearen aldeko; hala ere, jakin badakigu neska-mutilak elkarrekin biltzeak soilik ez duela hori ziurtatzen.

Bertan gure ikasleen arteko genero ezberdintasunak desagertzea eta aukera berdinak ematea dugu erronka. Ikasle guztiek dituzte aukera, eskubide eta betebeharrak berdinak.

Gure gizartea – behar bada gero eta gutxiago- oraindik ere sexista da, eta emakumezkoen eta gizonezkoen paper eta balio sorta jakin bana egokitzen dizkie. Berdintasun printzipioaz abiatuz, alde batera utzi nahi ditugu gizarteak historikoki eta era hierarkiko batean, emakume eta gizonezkoen esleitzen dizkioten rolak, sinbolo eta baloreak. Alde batetik, ez da beti erraza arrisku horretatik libratzea, baina Hezkuntza Komunitateak ahalegin bizia egin nahi du gure hezkuntza sisteman inork, bere sexua dela-eta, diskriminaziorik txikiena ere jasan ez dezan. Bestetik, egiazko hezkidetzaz sexualitate libreago eta erantzuleagoa lortzeko oinarriko baldintza da.

Biologiaz emakumezko edo gizonezko izateak psikologiaz eta jarreraz ere baditu bereizitasunak, kultur tradizio eta gizarteraketarako interesen araberakoak batik bat, eta giza



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



berdintasunaren aurkakoak. Zenbait balio eta alderdi emakumeei bereziki dagozkiela pentsatu ohi da: afektibitatea, intuizioa, aldakortasuna, menpekotasuna eta esparru pribatu eta etxeoari mugatzen zaizkion erabakimen, autonomia eta autoritatea; beste batzuk, ordea, gizonezkoari: indarra, oldarkortasuna, lehiakortasuna, arrazoimena eta erabakimen, autonomia eta autoritatea esparru publikora zuzenduak. Nolanahi ere, hori botere banaketa interesatu baten ondorio besterik ez da eta, egiaz, emakumezkoaren diskriminatzaile dira.

Helburu orokorrak

- Gizon-emakumeen berdintasuna bultzatzea da hezkidetzaren helburu nagusia, sexu bakoitzaren berezitasunak errespetatzea eta harreman zintzoak bideratzea.
- Hezkidetzak ekintza orotan bultzatuko da, afektua eta gogoak normalizatu egiten baititu: izan ere, bizikidetzak elkar ezagutza eta harremanak errazten ditu.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen paperen irudi tradizionalak aldarazten saiatuko gara, emakumearen bizitza familiarreko, profesionaleko eta publikoko partaidetzaren irudi berri eta positiboak sortuz. Horrek hiru alderdi ditu:
 - hizkuntza eta hezkuntza baliabideetan azaltzen diren emakumeei buruzko aurreiritziak baztertu eta ezabatu behar dira,
 - emakumeei buruzko irudi berria zabaldu behar da eskolan, jarduera berberetan elkarrekin integratuz,
 - heziketaren bidez, eraso diskriminatzaileez (etxeo bortizkeria, soldata berdintasuna, rol bereizketa...) jabetu behar dute ikasleek.

d.2.3.4. Formazio politikoa

Gizartean nor bere burua orekaz kokatzeko, nozio politiko nagusiak jakinez, tolerantziaz eta askatasunez jokatzeko ikastea beharrezkoa da.

Helburu orokorrak

Politikaren kontzeptu orokor nagusien ezagutza ziurtatzea:

- Historian zehar izan diren sistema politikoaren berezitasun nagusiak azaltzea,
- Euskal Herriko politika ulertzeko kontzeptu eta datu nagusiak



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



lantzea.

Gure gizartearekiko kezka eta ardura sortzea ikasleei:

- gizarteko elkarbizitza eta erakundeak eta eskubideak – norbanakoarenak nahiz taldearenak- ziurtatzeko moduan eraiki behar direla jakinaraztea,
- hori egiaztatzeko, hiritar erakundeek zein instituzio eta erakunde politiko orok duten garrantzia eta eraginaren berri izan eta aldatu edo hobetzeko gogoia sorraraztea,
- gehiengoaren nahia onartzen jakitea, baldin eta Giza Eskubiderik eragozten ez badu,
- gutxiengoaren nahia ez gaitzestea,
- gizaki eta gizataldeen arteko gatazkak inposaketa eta bortizkeriarik gabe gaingitu behar direla ikastea,
- joera politiko oro errespetatzea.

d.2.3.5. Erlijio kultura

Batez ere, gure inguruko gizartean errotutako sinesmen, mitologiak eta erlijioak landuko dira, beti ere kulturaren ikuspegiak adierazita.

Helburu orokorrak

- Erlijio kulturaren jabe egitea, hau da, erlijio eta sinesmen arloko gertaeren, ohituren eta abarren aurrean nor bere iritzia eraikitzen irakastea.
- Horren ondorioz, eta lehenik eta behin, erlijioak zer diren agertzea:
 - jatorria,
 - gizakiak berezko dituen galderen erantzun bila,
 - gizakia berez erlijiodun?,
 - erlijioen aurkako joerak eta erlijiorik eza noiz eta zergatik garatu diren,
- erlijio motak:
 - Naturaren indarretan oinarrituak,
 - politeistak,
 - monoteistak.
- Pluralismoaren eremuan jokatzeko jakitea:
 - munduan erlijio ugari daudela, guztiak errespetagarriak direla eta,
 - batez ere, zintzotasunez elkar errespetatu behar dutela,
 - erlijiorik gabeak –erlijioan sinesten ez dutenak- ere badaudela



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- eta, noski, besteak bezain errespetagarri direla,
- garbi utzi behar da, beraz:
- sinestea edo ez sinestea zerbait hautazkoa eta librea dela,
- sinetsi edo ez sinesteagatik, ez dela inor zintzoago edo gaiztoagoa,
- sinesmenaren eta jakite-jakintzaren arteko desberdintasuna.

- Sinesmena eta bizimoldeen eta balioen arteko lotura azpimarratzea:
- ez dago erlijio fenomenoak ulertzerik, ekintza, errito, ohitura eta balioak agertu gabe,
- hala ere, balioen zutabea ez da soilik erlijioa: erlijioan sinesten ez dutenak ere, modu berean, balioen jabe izan daitezke.
- Erlijioek Historian izan duten eragin on nahiz txarra ikusten eta kultur espresioetan duten agerpena eta eragina ezagutzen laguntzea: artean, literaturan, hizkuntzan, musikan, zenbait ohitura nagusitan...
- Erlijioa eta haren eraketa sozialaren (eliza, apaizak, sinestunak eta abar) arteko lotura eta bereizketa ikusten laguntzea.
- Elizaz hitz egitean ere, eliza guztiez hitz egin behar da, objektibotasun eta begirune berberaz, baita elizarik onartzen ez dutenez ere.
- Agnostizismo eta ateismoaren ezagutza: sorrera, garapena eta gaurkotasuna.

3.1.3. ANTOLAKUNTZA-EGITURAREN PRINTZIPIOAK

a) Ikastolen kolektiboaren egitura antolaketa:

□ **Lankidetzaren eta elkarmendekotasun-printzipioa**

Herri Ametsa Ikastola ikastolen taldeko edo kolektiboko gainerako ikastolekin elkartzeko, hezkuntza-sare bat eratzeko eta elkar sendotzeko beren artean ezarritako elkarmendekotasun- eta lankidetzaren loturei esker da egingarri eta ikastolen kolektiboaren eta ikastola bakoitzaren talde-arrakastaren emaitza da.

□ **Elkarlotura- eta artikulazio-printzipioa.**

Ikastolen taldeak edo kolektiboak dinamizatu egiten du gure hezkuntza-sarea (ikastola bakarrak, lurraldeko ikastolak eta lurralde desberdinetako ikastolak) bere maila guztietan ongi elkarlotuta eta artikulatuta egon dadin eta, horrela, ikastolen arteko informazio- eta komunikazio-harremanen fluxua norabide guztietan gauzatzen da.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



□ **Aniztasun- eta malgutasun-printzipioa.**

Ikastola bakoitza berezia da eta ikastolen estatus juridikoak errealitate juridiko-administratibo desberdinek baldintzatuta daude. Ugaritasun horretatik abiatuta, egoera desberdin eta aldakorrei malgutasunez egokitzeko ikastola bakoitzak duen ahalmena batetik eta malgutasun eta ugaritasun horiek, bai antolakuntzan eta baita zerbitzuen arloan ere, ikastola bakoitzaren berezitasunei egokitzuz eta doitzuz etengabe ari den berariazko hezkuntza-sare batean sartuta egotea bestetik, ikastola-taldearen edo kolektiboaren garapena eutsigarri izateko bermerik onenak dira.

□ **Etengabeko hobekuntzaren printzipioa.**

Ikastolen taldeak edo kolektiboak, etengabe aldatzen ari den munduan era jarraikian ikasi eta berritzeko gai izango den eta aldaketarako, berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako prestatutako hezkuntza-sare eran jardungo duen egituraren aukera egiten du.

□ **Enpresa-zentzuaren printzipioa.**

Ikastolen taldeak edo kolektiboak eraginkortasun-irizpideak erabiltzen ditu iritsi nahi dituen emaitzak lortzeko, bai elkartutako ikastolen beharrianak asebetetzeari dagokionez, bai gainerako bezeroei erantzuteari dagokionez eta baita bere berariazko kudeaketa-sistemei erantzuteari dagokionez ere.

□ **Tokiko elkarreraginaren eta elkarreragin unibertsalaren printzipioa.**

Ikastolen taldeak edo kolektiboak lankidetzaren harremanak eta itunak ezarriak ditu hezkuntza-, kultura- eta gizarte-arlo desberdinetako beste agente batzuekin, beti ere interes komuneko proiektuen eta egitarauen garapenaren inguruan. Horien artean lehentasunezkoak dira egitarau hauek: tokian tokiko arloan Euskal Curriculum, Euskal Eskola eta Euskal Unibertsitatea eta arlo unibertsalean, beren hizkuntza duten eta/edo beren hezkuntza-sistema izan nahi duten herri eta nazioetako elkarte eta erakundeekin, Europako Batasunaren esparruan arreta berezia jarritz.

□ **Elkarteko bazkide den ikastolari arreta eskaintzeko printzipioa.**



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



Ikastolen taldea edo kolektiboa sentibera da elkartekoa den ikastola bakoitzarekiko eta berarekin lankidetzan doitzen ditu bere zerbitzuak haren berezitasunetara.

b) Herri Ametsaren egitura antolaketa

Aurreko puntuan agertzen diren Ikastolen kolektiboari dagozkion antolakuntza egitura printzipioekin bat eginik, Herri Ametsa Ikastolak koopeeratiba izaera duen heinean, bere ardatzetan oinarriturik Barne Araudian zehaztuak eta garatuak ditu antolamendu eta funtzionamendu printzipioak (ikus Barne Araudia 1,2 eta 3. puntuak ... orrialdeak)

3.1.4. KALITATEAREN DEFINIZIOA

3.1.4.1 KALITATEAREN DEFINIZIOA

Herri Ametsa Ikastolan baloreetan oinarriturik dagoen hezkuntza integrala da **kalitatea**, bere inguru hurbilean txertatua eta Euskal Herria ardatz nagusia duena. Hezkuntza integral horretan, helburuak garbiak eta adostuak izateaz gain, hura aurrera eramateko eta Ikastolak irudi erakargarria izan dezan, ikasleak oinarritzko konpetentzien jabe izan daitezen bermatu eta irakasleen prestakuntza etengabea eta profesionaltasuna bultzatzen ditu; aldi berean, langileen arteko giro onari eta eraginkortasunari garrantzia ematen die. Hori guztia aurrera eramateko, hau da, prozesuen kudeaketa egokirako, Hezkuntza Komunitatearen estamentu guztien partaidetza bultzatu eta bermatuko duen lidergo garbia premiazkoa da.

3.1.4.2 KEI KALITATE EREDUA

Ikastolen Elkarteak, Partaide erakundeak eta Horreum fundazioak elkarlanean sortutako Hezkuntzari soilik lotutako kalitate eredu europar bakarra da.

Hezkuntzaren alorretik eta Hezkuntzarako bakarrik sortu izana da KEI eredu honen ezaugarri nagusia. 2000. urtean hasi zuen bere ibilbidea, PCI (Proyecto de Calidad Integrado) izena hartuta.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxe: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



2001ean itsatsi zitzaion ikastola taldea eta orduan hartu zuen KEI (Kalitate egitasmo integrala) izena.

Eredu honetan, behin izendapena lortu ondoren, kanpoko auditoria bost urtero burutzea proposatzen da, etengabeko hobekuntza bermatzeko edota balizko atzerapausoak ezagutzeko. Ebaluazio-irizpideak, bestalde, zehatzagoak dira, ebaluatzaileak interpretaziorako ahalik eta tarte txikiena izan dezan.

Herri Ametsa Ikastolak 2009. urtean kreditazioa lortu zuen. Kreditazioa lortu zuen Euskal Herriko bigarren eta Gipuzkoako lehenbiziko ikastola bihurtu zen.

2014. urtean KEIk agintzen duen modua ereduaren berreztapena lortu genuen, atreko auditorian hobetzeko genituen atalak bikaintasunez hobetuz.

3.2. HEZKUNTZA EREDUA

Gure eredu honetan, Oinarrizko Hezkuntza bukatzen denean zer-nolako ikasle mota espero den definitzeaz gain, ikaslearen irteera profilaren lorpena, irakaslearen profilarekin eta familia eta gizarte hezitzailearen eraginarekin batera azaltzen dugu.

3.2.1. Ikaslearen irteera profil orokorra

3.2.1.1.- Testuingurua eta gizartearen beharrak

Ikasleak ingurune naturalari, soziokulturalari, teknologiko-zientifikoari eta hizkuntza-inguruneari eta haien dimentsio historikoei eta etikoei dagokien oinarrizko ezagutza jasotzea da ikaslearen irteera profila osatzen duten funtsezko elementuetako bat. Kultura-ondarea osatzen duten jakintzen transmisioa oinarrizko hezkuntzaren funtsezko funtzioa da; izan ere, aukera ematen du pertsonak unean unekoa zentzuz bizitzeko eta etorkizuna eraikitzeko, pertsona horrek munduan duen lekutik beretik. Kultura-ondarearen transmisio hori osatzen da subjektua etorkizuneko behar eta erronkekin bat egin duten errealitate-forma berriak sortzen eta eraikitzen hasten denean, nola euskal gizartearenak hala globalak.

Testu ingurua eta gizartearen beharrak aurrera eramateko, sei atal nagusiok aurreikusten ditu Herri Ametsa Ikastolak:



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



▣ **Ingurune naturala**

Honako gai hauei buruzko oinarrizko jakintzak ezagutzen eta erabiltzen ditu: materia, kosmosa eta lurra, bizitzaren eta bereziki giza espeziearen ezaugarriak. Ikasleak naturaren eta bizitzaren partaide dela sentitu behar du, baita ekosistema osasuntsu bat mantentzeko ardura duela ere.

▣ **Ingurune teknologiko-zientifikoa**

Arrazonamendu matematikoa, zientziaren ezagutzak, metodologia eta aplikazio teknologikoak, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eroso eta erantzukizunez erabiltzen ditu eguneroko bizitzako eremuetan eta egoeretan.

▣ **Ingurune soziokulturala**

Euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren ondareen oinarrizko jakintza eta trebetasunak kritikoki erabiltzen eta estimatzen ditu. Partaide den komunitateko kide sentitzen da, eta, bere jatorria zein den jakitun izanik, munduko hiritartzat jotzen du bere burua.

▣ **Dimentsio historikoa**

Iraganean eta orain, Euskal Herrian, beste lurralde batzuekin interdependentzian, bizitzako egoera eta beharrei emandako konponbideen ikuspegi eta zentzu historikoa du, bai eta euskal gizarteak eta gizarteak, oro har, dituen etorkizuneko erronken perspektiba ere.

▣ **Dimentsio etikoa**

Giza eskubideetan oinarrituz, norberaren bizitza pribatua eta soziala burujabetasunez eta zentzuz bideratzeko, eta izadia, gure ama lurra, errespetuz zaintzeko eta jarraipen iraunkorra ziurtatzen eragiteko oinarriak ditu.

▣ **Hizkuntza-ingurunea**

Euskaraz eta beste hizkuntza ofizial batean (gaztelania-frantsesa) ahoz eta idatziz sortutako testu eta mezuak zuzen, autonomiaz eta sormenez ulertzen eta adierazten ditu, baita gutxienez nazioartean erabiltzen den beste hizkuntza batean ere.

3.2.1.2.- Pertsonen bizitza eremuak eta egoerak

Oinarrizko hezkuntzaren helburua bizitzarako prestatzea da baina bizitzarako prestatzeko moduak ez du zertan bera izan behar



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



Oinarrizko Hezkuntza osoan. Hasteko, mundua ulertzeko modua ez delako bera Haur Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, eta, horregatik, interesguneak eta ikasketa-egoerak ezin dira berdinak izan.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako aldian, funtsean, bizitza ikasgelan eta haien ingurune hurbilean gertatzen dena da. Hau da, ikasleen bizipenak haien behar, interes eta esperientziekin lotuta daude, baina ez dute, horregatik, amaierako egoeren perspektiba galtzen.

Oinarrizko Hezkuntzan aurrera egin ahala, modu esanguratsu eta motibagarrian gehitzen joango dira modu pragmatikoagoan heldutasuneko bizitzarako prestakuntzarekin lotura duten egoerak.

1. Eremu pertsonala

a) Eremu **pribatuko** egoerak:

- **Eguneroko bizitza:** Eguneroko bizitza pertsonalarekin, familia-bizitzarekin, komunitateko bizitzarekin eta oinarrizko beharrek lotura duten arazoak konpontzeko trebezia eta abiltate teknikoak eta instrumentalak dauzka.
- **Bizitza ludiko-estetikoa:** Arte plastikoak, dantza, musika, jolasak, literatura... praktikatzen ditu, eta haietaz gozatzen du.
- **Bizitza afektibo-emozionala:** Autokontrola eta oreka emozionala, autoestimua, autonomia eta sentsibilitate estetikoa ditu.

b) Eremu **publikoko** egoerak:

- **Bizitza soziala:** Taldean bizi da eta taldean lan egiten du, modu aktibo eta arduratsuan, eta bere eskubide eta betebeharez jabetzen da.

c) **Naturaren** eremuko egoerak:

- **Bizitza fisiko eta naturala:** Bere gorputza zaintzen du, eta ohitura osasuntsuak ditu. Kosmoseko eta lurreko



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



partaidetzat ikusten du bere burua, eta natura eta ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko ohiturak ditu.

2. Eremu akademikoa eta lan-eremua

- a) **Bizitza akademikoa:** Prest eta gogotsu dago ikasketei eta geroko prestakuntzari ekiteko.
- b) **Lan-bizitza:** Ideiak ekintza bihurtzeko gaitasuna ematen dioten ezaugarri pertsonalak eta sozialak ditu, baita kudeaketari dagozkionak ere.

3.2.1.3. Hezkuntza- xedeak

A. Bizitza guztirako hezkuntzaren xedea.

Euskal Curriculumean, hau proposatzen da bizitza guztirako hezkuntzaren helburutzat:

“Norberaren, gizartearen eta naturaren errealitateak kritikoki ulertzeko, horietan eraginkortasunez ekiteko eta arduraz eraldatzeko baliabideak ematean datza hezkuntzaren xedea, era horretara, pertsonak, gizabanako gisa, gizartekide eta izadikide gisa ahalik eta konpetentzia gehien gara dezaten”





Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Herri Ametsa Ikastolak giza garapen handiena lortzen laguntzen die bere ikasleei.

- **Norbanako edo izaki gisa;** horrek, ikasle bakoitza, besteekin batera bere biografia eraikitzen duen subjektu autonomo moduan identifikatzea eskatzen du.
- **Gizarteko kide gisa;** horrek, ikasle bakoitza, kulturantzatasuneko marko batean euskaldun legez identifikatzea eskatzen du.
- **Naturako partaide gisa;** horrek, ikasle bakoitza, kosmosaren eta lurraren barruan giza espezieko partaide eta izaki bizidun legez identifikatzea eskatzen du.

B. Hezkuntzaren xedek Oinarrizko Hezkuntzaldirako:

Oinarrizko Hezkuntzaldia, bizitza guztirako den hezkuntzaren derrigorrezko etapa komuna da eta giza nortasunaren garapen betea iristeko xede hauek ditu:

Ikasleak unean-unean egoerei egoki erantzuteko eta helduen bizitzan sartzeko eta norbanako subjektu moduan osotasunezko bizitza bizi ahal izateko, gizartearen partaide eraginkor diren herritar izateko eta natura gorde eta garapen eutsigarria gauzatzeko konprometitutako pertsonak izateko gai izan daitezen prestatzea da.

Ikasleek euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko elementuak berenganatzea lortzea eta ondorengo ikasketak egitera joateko nahiz lan-munduan sartzeko behar den bermearekin prestatzea da. Ikasleak sentiberatu eta gaitu beren bizitza osoan zehar ikasketak iraunkorki eta etengabe egiteko eta garatzeko gai izan daitezen.

3.1.2.4.- Oinarrizko kompetentziak: orokorrak eta arlokoak

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak (2006) zortzi oinarrizko kompetentziak edo gako gomendatzen ditu bizitza osorako hezkuntza iraunkorra bultzatzeko asmoz:

1. Ama-hizkuntzan komunikatzea;
2. Hizkuntza arrotzetan komunikatzea;
3. Matematika-kompetentzia eta Zientzia- eta Teknologia-arloko oinarrizko konptetentziak;
4. Kompetentzia digitala;
5. Ikasten ikastea;
6. Gizarte-konpententziak eta gizabide-kompetentziak;
7. Ekimen-zentzua eta enpresa-espirtua;
8. Kultura-kontzientzia eta kultura-adierazpena.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90


herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Espanian LOEk (2006) eta Frantzian LOK (2005) ezarritako araudiak oinarrian bat datoz nagusiki europar gomendioarekin.

Ikastolek oso baikorki baloratu dute **"Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumuma"** deituak egindako proposamena. Proposatzen diren hezkuntza-konpetentzia orokorrak hauek dira: ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, norbera izaten ikastea, egiten eta ekiten ikastea.



Hezkuntza-
orokorrak,
moduan,
batetik
lorpenean, eta
guztietan sartu

prozedura- eta jarrera-dukietan eragingarri bihurtuta, Europako Parlamentuak gomendatu eta Espainiako eta Frantziako araudiak ezarritako zortzi oinarrizko konpetentziak lortzea ahalbidetzen da.

konpetentzia
irudian ikusten den
bitartekari dira alde
hezkuntza-helburuen
bestetik ikasgai
behar diren

Oinarrizko konpetentziak dira bizitzako eremu eta egoeretan moldatzeko ezinbestekotzat jotzen direnak. Oinarrizko konpetentzien artean, batetik, **oinarrizko konpetentzia orokorrak** daude, ikasgai guztientzat berak direnak eta eremu eta egoera guztietarako balio dutenak, eta, bestetik, **oinarrizko konpetentzia espezifikoak**, ikasgai eta eremu zehatzagoekin lotura dutenak, eta testuinguru espezifikoagoetan aritzeko beharrezkoak direnak. Oinarrizko konpetentzia espezifikoak dagozkien eduki zehatzekin integratuta ikasten dira oinarrizko konpetentzia orokorrak. Oinarrizko konpetentziak dira, beraz, curriculum eremuetako oinarrizko konpetentzia espezifiko guztietan eta haietako bakoitzean oinarrizko konpetentzia orokorrak integratzearen emaitza.

3.1.2.5.-Oinarrizko konpetentzia orokorrak matadiziplinarrak eta arlokoak

Oinarrizko konpetentziak dira bizitzako eremu eta egoeretan moldatzeko ezinbestekotzat jotzen direnak. Oinarrizko konpetentzien artean, batetik, **oinarrizko konpetentzia matadiziplinarrak** daude, ikasgai guztientzat berak direnak eta eremu eta egoera guztietarako balio



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxe: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com




dutenak, eta, bestetik, **arloko oinarrizko kompetentziak**, ikasgai eta eremu zehatzagoekin lotura dutenak, eta testuinguru espezifikagoetan aritzeko beharrezkoak direnak. Arloko oinarrizko kompetentziei dagozkien eduki zehatzekin integratuta ikasten dira oinarrizko kompetentzia metadiziplinarrak. Oinarrizko kompetentziak dira, beraz, curriculum eremuetako arloko oinarrizko kompetentzia guztietan eta haietako bakoitzean oinarrizko kompetentzia metadiziplinarrak integratzearen emaitza.

A.- OINARRIZKO KOMPETENTZIA METADIZIPLINARRAK

Oinarrizko kompetentzia metadiziplinarrak erreferentziatzko ardatz nagusia dira nola oinarrizko hezkuntzarako hala bizitza osorako hezkuntzan, eta hezkuntza-testuinguru guztietan ikasten dira, bai testuinguru formaletan bai eta informaletan ere.

Kompetentzia horiek arloetako oinarrizko kompetentzietan eta eguneroko bizitzako eskolaz kanpoko egoera informaletan integratuz ikasten dira.



1.- Ikasten eta pentsatzen ikastea

- Modu esanguratsuan interpretatzen du informazioa (pentsamendu ulerkorra), informazioa sortzen du (sortzeko pentsamendua) eta informazioa modu kritikoan ebaluatzen du (pentsamendu kritikoa).
- Baliabide kognitiboak erabiltzen ditu, hala nola metakognizioa, jokabidearen erregulazioa, jokaera estrategikoa, eta ikasitakoa beste egoera batzuetara eramaten du.

2.- Komunikatzen ikastea



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Ahoz eta idatziz jarioetasunez, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez komunikatzen da.
- Modu integratu eta harmoniatsuan erabiltzen ditu hitz gabeko hizkuntzaren, hizkuntza artistikoaren eta hizkuntza matematikoaren oinarriko kodeak.
- Gizarteko komunikabideak modu eraginkor eta autonomoan erabiltzen ditu.
- Tresna eta baliabide teknologikoak (IKT) trebeziaz, arduraz eta modu kritikoa erabiltzen ditu.
- Euskal gizarteko eta munduko errealitate sozio-komunikatiboa modu kritikoa interpretatzen du, eta modu arduratsuan eta zentzu etikoz parte hartzen du inguruko komunikazio-prozesuetan.

3.- Elkarrekin bizitzen ikastea

- Besteekin interakzio positiboa mantentzen du arreta jarriz eta entzuteko jarduera aktiboa hartuz; enpatia erakusten du, behar duenari lagunduz, eta hitzarmen eta arau sozialak betez.
- Indarkeria erabili gabe irtenbideak aurkitzen ditu elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez.
- Modu aktiboan parte hartzen du eskolako testuinguruan eta handik kanpora.
- Pertsonekin taldean lan egiten du, elkarlanaren bidez partekatutako eginkizunetan helburu komunak lortzeko.
- Ezberdinak diren eta ezberdin pentsatzen duten pertsonak onartzen eta errespetatzen ditu.

4.- Norbera izaten ikastea

- Emozioak kontrolatzen ditu, eta jokabideak erregulatzen ditu lortu nahi dituen helburuetara bideratuz.
- Autoestimu baikorra eta errealista du, bere buruarenganako konfiantzan eta besteengandik estimatua eta balioetsia sentitzean oinarrituta.
- Bere kasa pentsatzeko, erabakitzeke eta jarduteko autonomia du, eta hartutako erabakien ardura bere gain hartzen du.

5.- Ekiten eta egiten ikastea


- Informazioa jasotzen eta ulertzen du, eta gogoeta egiten du inguratzen duen errealitateaz.

- ❑ Ideia eta irtenbide berriak bilatzen ditu, eta errealitatea hobeto planteatzen du, gaur egungo errealitateari dagokionez alternatibak proposatuz.
- ❑ Proposatutako errealitatea gaur egungo errealitatearen alternatiba gisa gauzatzeko beharrezko ekintzak egiten ditu.
- ❑ Egindako ekintzek sortzen duten benetako inpaktua ebaluatzen du.
- ❑ Horren guztiaren helburua da ekintzaile-prozesuarekin jarraitzea (prozesu jarraitua).

B- ARLOETAKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

Dagozkien diziplina-eremuen bidez lortzen dira oinarrizko kompetentzia espezifikoak, modu diziplinatuan, diziplina artekoan edo globalizatuan, eta eremu horietan oinarrizko kompetentzia orokorrak txertatuta.

Hezkuntza-kompetentzia metadiziplinarrak, irudian ikusten den moduan, bitartekari dira alde batetik hezkuntza-helburuen lorpenean, eta bestetik ikasgai guztietan sartu behar diren prozedura- eta jarrera-eremuetan eragingarri bihurtuta, Europako Parlamentuak gomendatu eta Espainiako eta Frantziako araudiek ezarritako zortzi oinarrizko kompetentziak lortzea ahalbidetzen da.



Hau da arloko oinarrizko kompetentziak zehazteko, hauxe da funtsezko galdera: zein ekarpen egiten du arlo edo gai bakoitzak, ikasleak une honetako bizitzako interes eta oinarrizko beharrei erantzuteko eta helduaroan garrantzitsutzat jotzen diren jarduera-eremu eta egoeretan moldatzeko prest egon dadin?



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



1.- Hizkuntzak eta Literatura: Hitzeko eta literaturazko kompetentzia komunikatiboa

Ikastolen Taldeak onartutako hizkuntzekiko lortu beharreko kompetentzia mailaren arabera, ikaslea gai da, euskaraz (B2), beste hizkuntza ofizialean (gaztelania edo frantsesa) (B2) eta nazioarteko komunikaziorako hirugarren hizkuntza batean (B1) bere bizitzako eremuetan, egoera bakoitzak eskatzen duen ahozko zein idatzizko hizkuntzaren erabilera egokia eta eraginkorra egiteko. Era berean, badu kultura literarioa, Euskal Herrikoa nahiz unibertsala, inguratzen duen mundua eta bere burua hobeto ulertzen lagunduko diona.

2.- Matematika: matematika-kompetentzia

Ikaslea, herritar arduratsu gisa, gai da matematikak gizartean duen funtzioa identifikatzeko, ulertzeko eta ezagutza matematikoa erabiltzeko, oinarri sendoko arrazoiketak eraikiz eta matematikaren berariazko pentsamendu eta adierazpen moldeak erabiliz, haren bizitzako beharrei erantzun eta arazoei irtenbidea eman ahal izateko.

3.- Teknologia: teknologia-arloko kompetentzia

Ikaslea gai da teknika eta ezagutza zientifikoak zentzuz eta arduraz praktikara eramanez, arazo praktikoei irtenbidea emateko eta gizakion behar eta desirak asetzeko bizitzako hainbat eremu eta egoeratan.

4.- Musika eta Dantza: arte-komunikaziorako kompetentzia

Ikaslea gai da adierazteko eta komunikatzeko eremu eta egoera egokietan musikako eta dantzako ezagutzak eta metodologiak erabilia, bere buruarekin, ingurune sozialarekin eta natura-ingurunearekin gozatzeko eta harmonian bizitzeko.

5.- Plastika eta Ikus adierazpena: arte-komunikaziorako kompetentzia

Ikaslea gai da bere bizitzako eremuetan egoera bakoitzak eskatzen duen hizkuntza plastikoaren eta bisualaren erabilera egokia eta sortzailea egiteko, eta besteen adierazpen artistikoak arrazoituz interpretatu eta balioesteko, hartara bizitzako errealitateari buruzko norberaren ikuspegia, ideiak, sentimenduak sormenez adierazteko eta bestei komunikatu ahal izateko eta, era berean, edertasunaz gozatzeko.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



6.- Gorputz Hezkuntza: gorputz-komunikaziorako kompetentzia

Ikaslea, duen jokabide motorrekin, bere buruarekin, inguru sozialarekin, kulturalarekin eta fisikoarekin oreka bilatzeko gai da.

7.- Gizarte Zientziak: gizarte-kompetentziak eta gizabide-kompetentziak

Ikaslea gai da bere bizitzako eremuetan eta egoeretan gizarte zientzietako ezagutzak eta metodologiak erabiliz, bere burua, kide den taldea eta bizi den mundua ulertzeko, eta horren ondorioz, hiritar arduratsu moduan gizarte demokratiko eta anitz baten alde aritzeko.

8.- Natura eta Osasun Zientzia: zientzia-arloko kompetentziak

Ikaslea gai da bizitzako hainbat eremu eta egoeratan, ezagutza eta metodologia zientifikoa erabiliz, bere burua eta natura ulertzeko, eta bere buruari buruz eta giza jokabideak mundu naturalean eragiten dituen aldaketei dagokionez erabaki arduratsuak hartzeko.

9.- IKT kompetentzia komunikatiboa

Ikaslea gai da, bere bizitzako eremuetan, egoera bakoitzak eskatzen duen IKT baliabideen erabilera egokia, eraginkorra eta arduratsua egiteko: informazio kudeatzeko, elkarlanean aritzeko, ekintzaile izateko eta horrekin guztiarekin ezagutza sortu eta partekatzeko.

10.- Tutoretza eta Orientazioa

Ikaslea gai da erabakiak hartzeko eta bere bizitza zentzuz bideratzeko, bere ibilbidea aukeratzeko eta egindako aukeren ardura izateko, bizitzako hainbat eremu eta egoeratan, eta, bereziki, gai da bere interes eta gaitasunekin bat datorren aukera akademikoa edo lan-aukera zein den erabakitzeko, ohartuki, bere burua eta errealitatea ezagututa.

C- ARLO GUZTIETARAKO METODOLOGIAREN ARDATZAK

Irakasteko metodologia, ikaslearen ikaskuntza prozesua ondo bideratzeko aukeratzen den bidea edo estrategia dela esan dezakegu.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Bide edo estrategia horren hautaketa eragile askoren baitan dago. Adibidez, hezkuntza-xedeek, ikaskuntza-teoriek, ikas-arloaren ezaugarriek, eduki-motaren tipologia (kontzeptuzkoa, prozedurazkoa, jarrerazkoa), ikasten duen subjektuaren ezaugarriek, irakasten duen irakaslearen ezaugarriek, eskura ditugun bitarteko eta materialen ezaugarriek, antolamendu-baldintzek eta abarrek, bakoitzak bere aldetik, ikasteko metodologia eragiten eta baldintzatzen dute. Ikasteko metodologia hautatzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko erabakirik konplexuena da, aipatu ditugun aldagai guzti horietaz ondo jabetuz, sintesi praktikoa eginez, irakasteko bidea hautatzea eskatzen duelako.

C.1 Arlo bakoitzerako baliagarria den metodologia

Irakasteko metodologia ulertzeko era horretan oinarrituz, lehen ondorioa da irakasteko metodologia egokiak ikaslearen irteera profil orokorraren osagaiak uztartu behar dituela. Ikas arlo bakoitzak, arlo bakoitzaren ezaugarrien arabera, erantzun behar dio ingurunearen eta gizartearen beharrei, arlo horri dagokion ikuspegi historikoa eta etikoa uztartuz, arlo horretako bizitzako eremu eta egoera esanguratsuetan aplikatuz, aurre ikusitako hezkuntzaren xedeak eta oinarritzko konpetentziak eskuratzeko. Ikas arlo bakoitzak izan behar du irakasteko eta ikasteko berariazko metodologia edo bidea.

C.2 Arlo guztietarako baliagarria den metodologia

Ikas arlo bakoitzak, esan bezala, izan behar du bere berariazko metodologia edo ibilbidea, baina badira arlo guztietarako baliagarriak diren metodologiaren norabide komunak. Norabide horien artean, Euskal Curriculumaren garapenerako lehenesten den konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegiaren ildotik, bi azpimarratzen ditugu: integrazio pedagogiaren eta oinarritzko konpetentzia metadiziplinarren arabeko metodologiak.

□ Konpetentziak eta oinarritzko konpetentziak garatzeko hezkuntza

Oinarriko Hezkuntzaren asmo nagusia ez da informazioa eta ezagutzak transmititzea, oinarritzko konpetentziak, hau da, bizitza osorako oinarritzkoak, garrantzizkoak eta ezinbestekoak izango diren konpetentziak eskuratzeko baizik. Konpetentzia izatea, egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez aritzeko gaitasuna dela esaten badugu, logikoa eta koherentea da pentsatzea, konpetente izaten ikasteko, **egoerak, proiektuak, problemak,**



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



zereginak behar direla, eta beroriek testuinguru problematiko errealetan, esanguratsuetan eta egokietan egon behar dutela kokatuta; hau da, hezkuntza-xedeak eta aurre ikusitako ikaslearen irteera-profila lortzen lagundu behar dute. Horretarako, ezinbestekoa da informazioa eta ezagutzak eskuratzea, baina ez da nahikoa, beharrezko da egoera bakoitzaren ezaugarrien arabera, informazio eta ezagutzak modu integratu batean mobilizatzen eta transferitzen ikastea. Lan mota horrek hartzen dituen formen artean ezagunak dira, besteak beste, proiektuetan oinarritutako pedagogia, problemen ebazpenean oinarritutako ikaskuntza, kasuen azterketa, ikasketa kooperatiboa, hitzarmenean oinarritutako ikaskuntza, etab.

Ezagutzen erabileraren garrantzia azpimarratzeak ez du esan nahi Oinarrizko Hezkuntzak lortu beharreko konpetentziak planteamendu utilitarista batera murriztu behar direnik, edota ikaskuntzak, euskal kultur ondare partikularren eta unibertsalaren birlantze eta transmisioak, duen garrantzia gutxitu behar denik. Badira zenbait ezagutza, esperientzia, sentimendu eta jarrera garen bezalakoak egiten gaituztenak, gure bizitzarako garrantzi handikoak direnak, gure burua, gizartea eta natura ulertzeko baliagarri zaizkigunak eta bizitzako egoeretan aplikazio zuzena ez dutenak. Pentsamendua eta izaera osatzen duten ezagutza hauek, egiteko moduan islatzen dira eta egiten denari zentzua emateko balio dute.

□ **Integrazioaren pedagogia**

Integrazio pedagogiaren ezaugarri nagusia, ikaslearen irteera profila oinarritzat hartuz, egoera esanguratsuetan eta arazo konplexuen aurrean ikaslea jartzea da. Ikasleak, arazo horri irtenbide egokia emateko, ikasitako guztia (kontzeptuzko ezagutzak, egiteko prozedurak, barneratutako jarrerak), era pertsonalizatuan eta integratuan mobilizatzen eta transferitzen asmatu behar du.

Ez dago arazo guztiak ebazteko era bakarra, horregatik, integrazioaren pedagogiak ez da oinarritzen ikasteko teoria edo paradigma bakarrean, aitzitik, egoera bakoitzaren ezaugarrien araberrako metodologia egokitua erabiltzea sustatzen du. Hala ere, Euskal Curriculumaren garapenerako, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen ikuspegi sozio-eraikitzailea **lehenesten da**. Lehenesteak esan nahi du ikuspegi sozio-eraikitzailea izango dela



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



erreferentzia nagusia, baina era osagarrian beste ikuspegiak ere erabiliko direla.

□ **Ikuspegi sozio-erakitzailea**

Ikuspegi sozio-erakitzaileak, eskola-testuinguruan ikasteko hiru dimentsioaren esku-hartze bateratu eta bereizezina beharrezkoa dela planteatzen du:

1) *Dimentsio soziala (S)*. Gainerako ikasleekin eta irakaslearekin gauzatutako interakzio sozialak antolatzearekin lotutako alderdiak dira, eta irakaslearen kontrolpean egiten diren irakaskuntzako jarduerak. Ikasleak pertsonalki eraikitzen ditu ezagutzak, besteekin interakzioan.

2) *Dimentsio eraikitzailea (E)*. Ikaskuntzaren antolamenduarekin lotutako alderdiak dira, ikaslea ezagutzen duenetik abiatuta bere ezagutzak eraikitzeko baldintzetan kokatuz, eta ezagutza zaharren eta berrien artean erlazio dialektikoa ezarriz.

3) *Dimentsio interaktiboa (I)*. Ikaskuntzaren xede den eskolako jakintzaren antolamenduarekin lotutako alderdiak dira, ingurune fisiko eta sozialarekin baterako eragin-trukea egokituz, ikaskuntzaren xede denaren ezaugarrien arabera. Beste modu batera esango dugu: ikaskuntza ez dute zehazten irakasgaiko edukiek, zeregina egin ahal izateko ikasleak erabiltzen dituen jakintzen **egoerek** baizik. Eskolako ikaskuntzak soilik "egoera" batean kokatuta lor daitezke, eta hauek, aldi berean, ezagutza berriak bereganatzeko eta hauek aurretik zituztenekin integratzeko iturriak eta ebaluaziorako erreferentziak izango dira.

□ **Prozedura metadiziplinarrak**

"Prozedura" esaterakoan esan nahi da, ekintza batzuk ganoraz burutzeko, arau edota norabide jakin batzuk era ordenatuan jarraitu behar direla. Prozedura horiek izan daitezke arautuagoak, algoritmoen antzera, ala norabide irekiagoak. Prozedura-mota desberdinak egon daitezke: adibidez, kontzeptuak eta jarrerak lantzeko prozedurak, edota trebetasunak lortzeko prozedurak.

Ikas-arlo bakoitzak, lortu nahi duen oinarrizko konpetentziak eskuratzeko berriazko prozedurak ditu: hizkuntzak, matematikak, musikak..., bakoitzak bereak. Baina badira prozedurak arlo



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



guztietarako komunak edota metadiziplinarrak direnak. Prozedura metadiziplinar horiek, ikas-arlo bakoitzeko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan uztartuz soilik lor daitezke.

Arlo guztietarako metodologiaren ardatzak finkatu nahi den atal honetan, oinarrizko konpetentzia metadiziplinarrak lantzeko baliagarriak diren prozedura metadiziplinarren aipamena egiten da.

Pentsatzen eta ikasten ikasteko prozedurak
Komunikatzen ikasteko prozedurak
Elkarrekin bizitzeko prozedurak
Izaten ikasteko prozedurak
Egiten eta ekiten ikasteko prozedurak

3.2.2. IKASTOLAKO IRAKASLEEN PROFIL PROFESIONALA

Aipatutako irakaslearen profilaz gain, eta osagarri gisa, KEIko 7. eremuan 7.2.1 puntuan, PROFIL PROFESIONALA deritzon atalean zehaztuta agertzen dira mota desberdineko irakasle, zuzendari, ikasketa buru, koordinatzaile nahiz Ikastolako edozein langileren profil profesionala etarne Araudian izendatutako funtzioak.

3.2.3. FAMILIA ETA GIZARTE HEZITZAILEEN ERAGILE EREDUA

Gurasoak dira seme-alaben lehen eta legezko hezitzaileak eta irakasleekin batera, bakoitza bere eginkizun propioetatik, ikaslearen nortasuna osatzeko lagunduko dioten giro egokia lortu behar dute. ikasle batek beti aurkitu beharko luke bere adierazpenak egiteko konfiantzazko giroa guraso eta irakasleen artean (Ikus Barne Araudian 7.3 Gurasoen eskubide eta betebeharrak).

Guraso eta irakasleen harremanak irekiak eta orekatuak, elkar oztopatu gabe eta leialak eta egiazaleak, arrazoiketa eta elkarrizketa izango dira harremanen oinarri eta ez, nagusikeriak.

Herri Ametsa Ikastolak gizartearentzat eta gizartearekin batera etengabeko prozesu eraldatzailean jardun du. Alde batetik,



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28

20016 Donostia

☎: 943 393 520 / 392 421

Faxa: 943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



gizartearentzat, egungo haur eta gazte biharko gizartearentzat prestatu behar ditugulako. Zentzu honetan eta hezkuntzako eragileak garen heinean, oso adi gaude sortzen diren eta sumatzen ditugun premiei erantzuteko eta beharrezkoak diren balore horien argitan hezteko. Gure herrietako hainbat ekimenetan eta gure beharra dagoen eta eskatzen zaigun guztietan parte hartzen dugu. Ikastola gisa gizartearengan eragin behar dugula balore etikoetan sustraitzen den gizarte bat aldarrikatuz.

3.3 JARDUNBIDE ETA KUDEAKETA EREDUA

Herri Ametsa Ikastolak dauzkan helburuak eta eginkizunak bete ditzan, beharrezkoa du egitura eta funtzionamendu eragile batez hornitzea, hots, GESTIOAREN BEHARRA dauka.

Gestio hau, ikastolaren ondorengo zereginetan oinarritzen da:

1. Giza baliabideak (irakasleen Etapa desberdinekiko kokatze egokiak, berauen prestakuntza, espezialitateak...) eta materialak (instalazio egokiak, zerbitzu osagarriak, hezkuntza baliabide aproposenak...) planifikatu eta kudeatu egin behar dira norabide bati jarraituz, finkatzen ditugun helburuak astiro-astiro lor ditzagun.
2. Gidaritza bat behar dugu helmuga eta helburuak egitaratzeko, errekursoak bideratu eta banatzeko, pertsonak eta funtzioak koordinatzeko, lortu nahi ditugun helburuen erdiespenean amaituko den lan batean animatuz eta motibatuz.
3. Ebaluazioa eta kontrola ere behar ditugu, erabili ditugun baliabideek finkaturiko norabideari jarraitzen dioten edo ez, edota zein neurritan; eta ezarritako helburuak lortzen ditugun edo ez, edota zein neurritan betetzen ditugun egiaztatzeko.

Zeregin hauetatik, beraz, bi gestio-maila bereiz genitzake:

1. Ikastolaren **GOBERNU GESTIO**arekin zerikusia duten eginkizunak:
 - Norabidea, helmuga, helburuak.
 - Egitasmoen onespenuak, norabidea, helmuga eta helburuei dagozkienean.



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com




- Egitasmoen burutze, kontrol eta ebaluazioa.
- 2. Ikastolaren **FUNTZIONAMENDU GESTIO**arekin zerikusia duten eginkizunak:
 - Egitasmoen antolaketa.
 - Egitasmoak lantzea.
 - Azken batean, ikastolako pedagogia, eta ekonomia -administrazio arloen garapena.

Dena den, bi gestio hauek, gestio orokor baten azpi-gestioak baino ez dira, zeren beren egitekoa prozesu bat bakarria eratzen duten jardueren bidez garatzen baita.

3.3.1 GOBERNU EGITURA

- Herri Ametsa ikastolaren norabide nagusiak finkatzen dira
- Egitasmoak onartzen dira
- KEIren metodologia jarraituz Hezkuntza Komunitatearen jarduera eta emaitzak aztertzen eta ebaluatzen dira.



Herri Ametsa Ikastolaren nahiz Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen Gobernu-organoak ondorengo hauek izango dira: Bazkideen Batzar Orokorra eta Artezkaritza Kontseilua.

1. BAZKIDEEN BATZARRE OROKORRA

Ikus Herri Ametsa Ikastolako Barne Arautegia 2.1 atala eta Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen Estatutuak, 3-20. orr., 7-28. atalak.

2. KONTSEILU ERREKTOREA


Ikus Herri Ametsa Ikastolako Barne Arautegia 2.2 atala eta Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen Estatutuak, 20-28. orr., 28-38. atalak.

IKASTOLAKO GOBERNU EGITURA



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxe: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



3.3.2 FUNTZIONAMENDU EGITURA



Herri Ametsa Ikastolaren HEZKUNTZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola
Guardaplata 28
20016 Donostia
☎: 943 393 520 / 392 421
Faxa: 943 40 40 90
herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com




Oinarrizko esanahia

Funtzionamendu egituraren garatzen dira Ikastolaren Gobernu Egituran finkatutako xede, norabide eta helburuak.

Funtzionamendu egituraren lau maila desberdin ditugu:


- Funtzionamendu Eratzailea.
- Funtzionamendu Pedagogikoa.
- Funtzionamendu Administratiboa.
- Beste Zerbitzuen Funtzionamendua.

a. Funtzionamendu Eratzailea.




b. Funtzionamendu Pedagogikoa.

Funtzionamendu Pedagogikoa



c. Funtzionamendu Administratiboa.

Funtzionamendu administratiboa



erbitzuen funtzionamendua.

Zerbitzuen Funtzionamendua

